

KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA / 2009ko ekainaren 05a / 262. zenbakia / 20. urtea

- **HRIKO KONTUAK Kultur Aniztasunaren jaia** 05
- **KIROLA OBK babeslea badu** 08
- **AIAKO BERRI Pagoeta eguna** 11
- **IRITZIA Garazi Urretabizkaia** 18
- **MOILA BAZTERRETIK Jokin Salsamendi** 19
- **HERRITARRA Begoña Bailyn** 25



Karkara taldeak
20 urte egin ditu

KARKARAK sanpedroetan 20 urte beteko ditu eta hori dela eta, aldizkaria baloratzeko eskatu diegu irakurleei. Emaitzak erdiko orrietan daude.

PERTSIANAK
A K O M A Z



Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

Tel: 943 13 29 or Mugikorra 600 70 52 27




JUAN PEDRO FERNANDEZ OSA
30282 ZERBANTZUAN PSIKOLOGO KOLJAZIATUJ
AHELKULAGITZA BIKOTE ARTEHO GATAKETA
PRESTAJUANITZA TRIBUNALUAN KODAGUTAN
916 99 25 47
www.jpfps.com




Sagasti
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI
Tf: 605 732 911
Faxa: 943 020 213
ventanasagasti@euskalnet.net
Bizkaia Kalea, 20-1 B
20800 Zarautz



Nahikari

HAIKUR DENDA



Aranatzale Kalea, 35
28200 - Oria
Tf: 943 83 34 30
www.nahikari.es



Joseba Ostolaza
TAXIA

24 ORDUKO ZERBITZUA
Tf: 646 510 288



Baxoalde, 9
ORIO



arroztozia
MIRANDA
Jose S. Larrea

leitrea, ate, leiho, eskalera...
behar diren arto lanak
egingo ditugu

Urdaneta bidex. 1 -669 42 32 70- ZARAUTZ

ile apurkidegia
MARIJO



Neska eta
mutientzat

Eusko Gudari, 8 - bajo
Tel. 943 13 47 29
ORIO

Orioko
Ogia



ORIOGI

OPIL OKINDEGIA
Frontoi ondoan
Tfnoa: 943 83 01 89

Allianz

Marigre Zaldua
aseguru agentea

Ibañeta Ordo, 16 behe-gina
telefonoa: 943 13 47 60
faxa: 943 83 07 52
e-maila: zaldua.deboraz.po@allianz.es



Kalea Lortzenitzak
Mantutze Lortzenitzak

Kalea lortzenitza 647028489

lortzeko eta terrazien diseinua eta
mantentzea, ureztatze sistemak eta
kanaketa espezializatuak.

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra,
denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu
konpromisorik gabe

Lan txukuna
eta merkea

Tfnoa: 943 83 59 00

LEIHOLAN

Aholkularitza tekniko eta erakusketak

Publika Agote Industrialeko Agote, 3 40740 Zarautz	Enkiztatik San Juan Kalea, 1. 20800 Zarautz.	Alta Lertxundi, 21. 20810 Orio Tel: 943 89 49 36
--	---	---

LURDES
BERRANDEGIA



Eusko Gudari, 4- Tel. 943 83 00 24

Lizaso
dekorazioa



Eusko Gudari, 40
Tf: 943 83 07 34 Faxa: 943 83 07 33

ardoak, urdaiak, gaztak,
kontserbak, janari prestatuak

etxeraino
eramaten ditugu



943 83 09 84 alta lertxundi, 36
ORIO

LOBETXU JATEKETA



Eusko Gudari, 18 Tf: 943 83 00 07

KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA

Kultur Etxea
20810 ORIO
943 83 15 27
karkara@karkara.com

Editorea

Karkara taldea kultur elkarte

Zuzendaria

Ana G. de Txabarri

Erredakzio burua

Lore Berasaluze

Erredakzio taldeaMikel Aranzabal, Pat Cowie,
Miren Etxeberria, Eli Lasa,
Monika Uzkieta eta Jabier Zabaleta**Publizitatea**

Pat Cowie

Publizitatearen diseinua

Lore Berasaluze

Testuen zuzenketaMiren Etxeberria eta
Jabier Zabaleta**Ale honetako laguntzaileak**Iñaki Gurrutxaga, Ixabel Unsain,
Eneritz Odriozola, Patxi Uranga eta
Garazi Urretabizkaia**Diseinua**

KARKARA taldea eta Goio Arana

BanatzailakAne Etxabe eta
Ander Mujika (Orio)
Ainize Sayago (Aia)**Inprimategia**

Gertu Koop. E. (Oñati)

Lege gordailua SS-346/90**ISSN** 1132-1105**Tirada** 3.100 aleKARKARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen edota
iritzien erantzukizunik.KARKARAN argitaratutakoa berreman
daiteke, osorik edo zatika, baldin eta
iturria aipatzen bada.

Europako hauteskundeei

IÑAKI GURRUTXAGA (ERRIKOTXIA BERTSOZALEEN ELKARTEA)

Eurovision pasa zen baina
 aukeran oso astiro
 telebistarik ez ikusteko
 atzera mila motibo.
 Mendebaldeko gurdi gainera
 ez ginen alferrik igo
 hilak zazpian, handi zein txiki,
 akomodatu zein txiro,
 lau urtez behingo europar zintzo
 izango gara berriro.

Aspaldi boto-eskubideak
 egin izan digu herren,
 aurten aukerak zabaldu dira
 ta sentitzen naiz pozarren.
 Gu, euskaldunok, izatez gara
 Europako europarren,
 noizbait ohartu beharko dugu
 Bruselasek zer dakarren,
 sukalderraino sartzen baitzaigu
 guk urrun ikusi arren.

Azpiegituren dirulaguntzak,
 arrantzaleentzat neurriak,
 Bologna plana, euroaginduak,
 ekonomi-oinarriak...
 zein bide motza ibili duen
 konstituzio berriak!
 Beste eredu bat bila dezagun
 Europara etorriak
 iniziatiba izan dezaten
 herriek eta herriak.

**PUBLIZITATE PREZIOAK****IRAGARKIA ALERO JARRITA**

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

IRAGARKIA BEHIN JARRITA

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko Pat Cowierekin hitz egin (695 78 07 20) edo karkara@karkara.com
 Prezio hauei BEZA gehituko zaie



Euzko Jaurlaritzaren Armaria

Kultura Sailak
 diruz lagundutako
 hedabidea

LAGUNTZAILEAK

Guk, Iniziatiba Internazionalista

Oraindik EAEko administrazioari dagozkion hauteskundeak bor-bor daudela, berriz ere hauteskontzietara joatea dagokigu; oraingoan Europako Parlamenturako ordezkari-ritza aukeratu beharrean gaudete. Ezker Abertzaleak, betiko moduan, eginahal guztiak egin ditu bertan present egoteko, ahots propioa izateko. Iparraldean Euskal Herriaren Alde plataformaren bitartez posible izan dena Hegoaldean ezinezkoa izan zaigu, Espainiako estatuko saside-mokrazia dela-eta. Hala eta guztiz ere, asko dira begirunea erakutsi digutenak eta testuinguru horretan kokatu behar dugu Iniziatiba Internazionalistako lagunek egingadako apustua. Apustu irmoa eta duintasunez betetako, berriz ere, Espainiako estatuaren jarrera faxista azalaziti eta herrien autodeterminazio eskubidea aldarrikatzen duena.

Egoera berezian egingo dira hauteskundeak; izan ere, egungo krisiak dituen eragin ekonomiko eta sozialez gain, aldaketa politiko garrantzitsuak ari dira sortzen. Eta hori gutxi balitz –ezin du bestela izan– etorkizun hurbil batean areagotuko dira, gainera.

Espainiako estatuaren kasuan, krisiak, bai globalak bai berezkoak, Rodriguez Zapateroren gobernuaren politikak argi eta garbi zein diren erakusten du: ustelkeria orokortua, errepresio legal eta ilegalaren erabilera herri sektoreek sorturiko edozein gatazka sozial eta politikoren aurka jarduteko...

Horren aurrean gaudete ezkerreko indar soberanista eta independentistak, Espainiako estatuan zein, oro har, munduan dauden herri zapalduen nazio-eskubideekin errespetua dugun ezkerreko indar politikoak, baita hainbat mugimendu sozial eta sindikal ere. Uste dugu badagoe-la gaitasun nahikoa gero eta gehiagok nahi dugun aldake-

ta hori norabide antikapitalista eta demokratiko batean bideratzeko.

Herri Katalanak, Euskal Herria, Galizia, Britainia, Eskozia, Flandes, Gales, Ipar Irlanda... hamaika borroka, amets bakarra: Askatasuna. Ekainaren 7an, guk Iniziatiba Internazionalista.

ORIOKO EZKER ABERTZALEA

Aldaketa garaia: etorkizuna geure esku

Europako hauteskundeak izango dira laster eta panorama aldatzen ari da. Espainiako herrietako pertsonen osatutako kandidaturak ahotsa eman dio ezker abertzaleari. Ez dut inoiz horrelakorik eza-gutu eta maila horretako pertsonen konpromiso eta duintasun hori erakusteak harritu eta poztu egin nau. Iniziatiba Internazionalistaren hauteskunde programak, euskaldunen gehiengoaren nahiak eta beharrak hementxo beste kandidatek baino hobeto jasotzen dituela iruditzen zait. Beraz, polo soberanista eratzeko, Iniziatiba Internazionalistari bozka ematea da modurik eraginkorrena. Gauzak aldatzen ari dira eta oso azkar, gainera. Etorkizuna ezberdina izango da. Oso hurbil gaudete. Gazteok, bozka Iniziatiba Internazionalista. Aurrrera!

ITZIAR BARRENETXEA

Euskal lurraren maitaleak!

Telbista piztu eta nire herriko alkate *Dimis Jon* Redondo eta bere alderdi kapitalistako kideak ikusi behar, Zumaiako itsaslabarrak atzean zituztela, gure herriaren maitale direnaren itxurakeria saltzen.

A zer nolako aurpegia! Bitartean, pixka bat alborago Jaizkibel eta Udalaitz txikitzen, Pasaia, Zarautz, Añorga eta Gipuzkoa osoa kutsatzen,

Urkiola txikitzen eta Zumaiako itsaslabarren errespetu bera merezi duten Euskal Herriko hainbat eta hainbat animalia eta txoko birrintzen ari zarete, zuen poltsiko zikinak betetzeko.

Zuek Zumaiako itsaslabarretan eta Euskal Herriaren kapitalekin bakarrik ikusten duzue. Zuen eta zuen inguruko poltsikoak nola bete pentsatzen pasatzen duzue eguna eta hori lortzeko ari zarete Euskal Herriko herriak eta bazterrak hormigoiz betetzen, garpeneren izenean.

Etxeko logeletan eraikiko nitzizueke zuei erraustegiak, 24 ordu gas toxikoak jatea, tragatzea zer den jakin dezazuen. Etxean jarriko nitzizueke AHTak ateratzen duen zaratara, hainbeste aldira aipatzen duzuen bakea gertu senti dezazuen. Ea konturatzen zareten zein krudelak zareten eta zuen diru grinak zenbat balio duen.

IBONI

Bigarren Gazte Festak

Irailaren 25etik 27ra ospatuko ditugu 2. Gazte Festak. Denbora asko falta da oraindik, baina, iazko festa arrakastatsu eta parte hartzaileak nahi baditugu, lanean hasi beharra dago jada, udako oporrak dira-eta tartean. Aurten, herriko koadrilen artean banatu nahi dugu egitaraua antolatzeko ardura, horrela, 2. Gazte Festak antolaketatik hasita izango baitira parte hartzaileak eta denok gozatu ahal izango dugu jaiekin.

Horregatik, herriko koadrila guztiak deitzen zaituztegu ekainaren 16an, 19:30ean, Kosta Tailerlean egingo dugun bilerara, gutxienez kodrilako ordezkari bana agertu dadin, denon artean proposamen berriak bildu, erabakiak hartu eta lanak banatzeko.

Txupinazoa, afaria, kontzertuak, gazte olinpiadak, bertso bazkaria, diana, herri kirolak, baltsa karrera... dene-

tik izan genuen iaz eta aurtengoan ez da gutxiago izango. Primerako jaiak, baliabide gutxiarekin eta diru irabazi asmorik gabe eginak. Auto-gestioa baita gazteon bidea; gaztetxean eta kalean... Gazte Festak, gazte estilora!

OKK GAZTE ASANBLADA

Zakarrontziak berritzeko garaia

Kaixo, ez dakit nola hasi, beraz hoberena *egun on* batekin hastea izango da.

Hondartza ingurua oso polita jarri zenuten bantzuentzat; baina, herritarra izan aldetik, nire kexa azaldu oinez ibiltzea eta, hara! aurreko aste bukaeran, moda berri bat ikusi dut Orioko hondartza inguruko zakar-ontzietan: plastiko txuriz estalita ikusi ditut, eta horrela ez dute ezertarako balio, ez, behinik behin, zakarrak jasotzeko. Hainbeste kostatzen al da horiek denak konpontzea?

Ardura dutenentzat nire zorionak. Ez daukazue lotsik. Nola liteke birziklatzearen garaiotan horrela aritzea? Dagoeneko bizpahiru uda daramatzat halako eskulturak ikusten. Mesedez, noiz konpondu behar duzue arazoa?

HERRITARRA

Beharrezkoa dugulako!

Udaberriarekin batera, aspaldidanik gogoz zain egon eta gero, gaztetxearen asmoa loratzen hasi zaigu berriz ere. Duela gutxi, 1.115 sinadurek argi erakutsi dute gazteok eta herritarrok espazio baten beharra dugula: herrian bertan geuk autogestionatuko dugun espazioa. Emakumeok ere parte aktiboa izan behar dugu gaztetxe berrian.

20. ORRIALDEAN JARRAITZEN DU

EKAINAREN 20AN EGINGO DA FESTA EGUNA, HERRIKO ETORKINEK ETA UDALAK ANTOLATUTA

Kultur Aniztasunaren lehen jaia sanpedroen aurretik

Ekainaren 18an, 20an eta 21ean egingo da Orioko herritarren kulturak hobeto ezagutzeko jaia, baina larunbata izango da festaren egun nagusia.

Ekaina bukaera jaiez blai datorkigu, izan ere, sanpedroen aurretik, Kultur Aniztasunaren lehen jaia ospatuko da Orion, ekainaren 18an, 20an eta 21ean, Udaleko Euskarra Batzordearen, Urola Kostako YAAKAR senegaldarren elkartearen eta hainbat herritarren artean antolatuta.

Afrikarrak, hego amerikarrak, europar bat edo beste... Orio ijitoen herria dela esaten da eta urteetan aurrera bertan finkatu diren beste kulturak bildu eta ezagutara ematea da helburua, bide batez, batak bestearengandik ikas-teko aukerarik galdu gabe.

EGITARAUA

Ekainaren 18an, ostegunarekin hasiko da kulturen arteko jai berria. 19:00etan, Udaltxeko udalbatzarraren aretoan, Orion bizi diren atzerritarrekin mahai inguru zabala egingo da. Iker Gurrutzagak egingo ditu moderatzaile lanak, eta kanpotik etorritakoek nola ikusten gaituzten eta gure artean nolako trabak topatu dituzten jakiteko aukera ezin hobe izango da.

Larunbatean, hilaren 20an, izango da egun handia. Tolosako Udalaren karpekin, 11:00etatik 22:00etara, bost gune sortuko dira plazan: senegaldarrena, Brasil eta Txileren artean jarritakoa, Ekuadorkoa, marokoarra eta Kuba, Nikaragua eta Portugalen arteko lankidetzaz sortutakoa. Horiez gain, Goiko Kaleko festa batzordekoek garagardoa eta sagardoa eskainiko dute plazan bertan jarriko duten



Etorkinen eta oriotarren lagun arteko bi futbol partida jokatuko dira igandean.

I. ITURAIN

tabernan. Erabiliko diren edalontziak eta platerak berrera-bilgarriak izango dira, hondakinak ahalik eta gehien murrizte aldera.

Ez dira, ordea, erakusleku horiek izango festarako aitzakia bakarra, egun osoan animazioak ere izango baitira hantxe plazan: 12:30ean,

Capoeira erakustaldia egingo da; 18:30ean, Senegalgo erritmoak entzuteko aukera perkusio emanaldiarekin; 18:45ean, Nikaraguako dantzak izango dira ikusgai; 19:00etan, *Vivencia* talde otabalarrak emanaldia eskainiko du; 20:00etan, Harribil dantza taldearen erakustaldia eta Errikotxiaren bertso saioa izango dira, Jon Sarasuaren dezimekin bukatuta; eta, 20:45ean, *Kubatá* taldea.

Igandea lagun arteko harremanak bultzatzeko eguna izango da. 11:00etan, Orioko nahiz kanpoko nesken arteko futbol partida jokatuko da eta, 12:00etan, Orioko gizonen zoko beteranoen eta etorri berrien artekoa. Jaiari amaiera emateko, 14:00etan, lagun arteko bazkaria egingo da kiroldegiko tabernan.

Zatoz zu ere festara!

Kanpotar asko etorri da Oriora, nor bere hizkuntza eta kulturarekin. Kultur aniztasun handia dugu. Baina zer dakigu haiena? Nondik etorri dira, zergatik, nolakoa da haien kultura?

Guretzat haiek besteak dira, beste oriotarrak. Gutarrak egin behar ditugu. Horretarako, lehenengo pausua elkar ezagutzea da. Bide horretan sortua da kultur aniztasunaren jaia: elkarren kulturak erakusteko. Gogo onez hartu dute, zain zeuden. Guk gure kultura eman behar diegu, gure hizkuntzara gonbidatu. Eta onena festa giroan hastea dugu: elkarrekin jan, edan, kantatu, dantzan, futbole... eta hitz egin. Zuk ere parte hartuko duzu, ezta?

IÑAKI ITURAIN | FESTAREN ANTOLAKETAKO KIDEA

PATATA TORTILLA TXAPELKETA IZATEN DA JENDE GEHIEN ERAKARTZEN DUENA

Ekainaren 6an jai izango da Anibarko Portuan

Lehen, San Joan bezperako suarekin batera egiten bazen ere, badira urte batzuk Anibarko Portuko jaia aurreratu egiten dela; aurten, ekainaren 6an izango da.

Anibarko Portuko auzokoek herri guztiarentzako moduko jaia antolatzen dute urtero eta gero eta herritar gehiago hurbiltzen da jaian parte hartzera, batez ere, haurrentzako jolasek, partata tortilla lehiaketak eta mus txapelketak erakarrita.

EGITARAUA

Goizean, 10:00etan, hasiko da jaia, txistularien dianarekin. 10:30ean, haurrentzako jolasak izango dira eta, 11:30ean, haurrek eta helduek Gorritiren animaliekin gozatzeko aukera izango dute. Ordu berean, auzoko jubilatuentzako hamaiketako ere izango da.

Eguerdian, sardinak jateko eta sagardoa txotxean edateko aukera izango da eta, bitartean, bertsolariak arituko dira. Gainera, 12:30ean, patata tortilla lehiaketa eta dastaketa izango dira; beraz, sardinak eta tortilla janda, bazkariarentzat toki askorik ez da izango sabelean. Auzotar asko animatzen da sukaldean egitera eta, haien arteko bromak eta algarak direla eta, leku finkoa lortu du tortilla lehiaketak auzoko jaietako programan.



laz apar-festa antolatu zuten Anibarko Portuan, haur eta gazteentzat. KARKARA

Gauean, festa bukatzeko, auzokoek afaria izango dute, 21:00etan hasi eta nork daki zein ordura arte

Arratsaldeko egitaraua mus azkarreko txapelketarekin hasiko da, 15:30ean. Ziu-

rrenik, bikote askok emango du zena, eta saria horren neurrikoa izango da. 16:00etan, haurrentzako jolasak izango dira, Txurumuski aisialdi taldeak antolatuta eta 17:30ean, berriz, jateko nahi adina txokolata izango da haurrentzat eta helduentzat. 18:00etan, Orioko Heldu! herri kirol taldearen saioa izango da Anibarko Portuko plazan.

Gauean, festa bukatzeko, auzokoek afaria egingo dute, 21:00etan hasi eta nork daki zer ordura arte.

LABUR

KARKARA Zubizarreta

KARKARAK antolatuta, Patxi Zubizarretaren *Hamar mezu eta dei bat* literatur emanaldia izango da datorren ostiralean, ekainaren 19an, Orioko udaletxeko udalbatzarraren aretoan, 19:00etan. Sarrera doan izango da.

Ordu beteko errezitaldi musikatu horretan Txema Garces-musikaren egilea eta baxu jotzailea eta Josetxo Goia-Arribesaxoan-izango ditu bidelagun Zubizarretak. Emanaldiarekin gozatzera etortzeko gonbita egiten dizuegu.

BERTSOLARITZA

Iparragirre txapelkun

Gipuzkoako Eskolarteko bertsolari txapelketako txapeletako bat, LH3. ziloari dagokiona, Oriora etorri da aurten, Ikastolako Sara Iparragirrek 10 eta 12 urteko haurren arteko lehia irabazi baitzuen.

MUSIKA

Dantza saioa

Danbolin Musika Eskolako ikasleek dantza saioa eskainiko dute ekainaren 13an, Karelana. 4 eta 13 urte bitarteko 185 haur elkartuko dira 18:00etatik aurrera, Ander Errasti irakaslearen agindupean eta 15 bat pieza dantzatuko dituzte. Instrumentu ikasleek ere parte hartuko dute.


ACTIVA

Akobe
 ELEKTRAGAILUAK ETA SUKALDEKO ALTZARIAK
 Juan Albizu
 ASESIA: 6 - TEL/FAX: 943 33 12 49
 20809 ORIO


azkue
 Tf: 943 13 04 38

edantegia
ANTILLA
jatetxea
 Ansoari Kalea, 2 - TEL: 943 33 20 00

ESKULIBURUA ETA PROGRAMA INFORMATIKOA EUSKARATU DITUZTE

Gidabaimena euskaraz atera daiteke hemendik aurrera

Autoa gidatzeko azterketa euskaraz egin zitekeen lehendik ere, baina ez zegoen orain arte hori prestatzeko material egokirik.

B1 autoentzako gidabaimena euskaraz ateratzeko kanpaina jarri dute martxan Urola Kostako Udal Elkarteak osatzen duten Udalek –Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaia– eta inguruko autoeskolek –Solozabal, Jolmar eta Zumaia–ekinean.

Orain arte gidabaimeneko azterketa euskaraz egiteko aukera bazen ere, ikasketak gaztelaniaz egin behar ziren, eskuliburuak eta testak ez zeudelako moldatuta. Material guztia –idatzizkoa eta programa informatikoa– euskaraz jarri du orain Valentziako AEOL (Autoescuelas On Line) enpresak, Debagoienako Udal Elkartearekin eta eskualde horretako udalekin elkarlanean. Trafikoko Zuzendaritzak erabiltzen duen terminologia eta hizkera jaso dituzte eta, beraz, egokituta daude gidabaimena ateratzeko baliagarriak diren testu guztiak.

LAN-HITZARMENA

Gidatzeko baimena euskaraz landu eta ateratzeko zerbitzua eskaintzeko, hitzarmena sinatu zuten Urola Kostako Udal Elkarteak eta autoeskolek, maiatzaren 29an. Horren ar-



Urola Kostako Udal Elkarteak gida baimena euskaraz ikasteko kanpaina jarri du martxan ekinean.

KARKARA

bera, udalek eta Mankomunitateak zenbait konpromiso hartu dituzte: sustapen kanpaina egingo dute –agerraldi publikoa, kartelak...; euskarazko 500 eskuliburu banatuko dira eskualdeko autoeskoletan, euskaraz gidabaimena atera nahi duenari doan emateko; eta elkarlanean jarraituko dute sor daitezkeen arazoari irtebidea emateko —harremanak Trafiko Zuzendaritzarekin, elkarlana beste erakunde publikoekin.

Autoeskolek, bestalde, gidatzeko baimena euskaraz

atera ahal izateko aukeraren berri emango diete herritarrei; egin behar diren aldaketa eta lanak egingo dituzte; udalekin eta Udal Elkartearekin lanean aritzeaz gain, proposamenak egingo dizkiete euskararen erabilera normalizatzeko; eta gidatzeko baimena euskaraz atera duten herritarren inguruko datu estatistikoak emango dituzte.

PRAKTIKAK

Urola Kostako Udal Elkartearen arabera, Trafiko Zuzendaritza Nagusiak oztopoak

Trafikoko Zuzendaritzak erabiltzen duen terminologia jaso dute eta, beraz, egokituta dago materiala

jarri izan ditu azterketa praktikokoak euskaraz egiteko eta Udal Elkarteak eskatuko die berma dezatela azterketa hori euskaraz egitea.

Kinkiladenda- Uma arropa

argine.

www.lasnet.com/argine
Tel. 943 13 48 89

25eko DESKONTUA FAMILIA UGARJEN TXARTELAREKIN



RAMIRO

erreportaje
digitalak

943 83 10 48
www.fotoramiro.com

ARISTERRAZU
jateketa

Andatza auzoa AIA
Tel. 943 83 45 21



Kamisetako eguzki horiak zortea emango diela uste dute OBBkoek.

KARKARA

EKAINAREN 7AN LIGAKO AZKEN PARTIDAK JOKATUKO DITUZTE ORION

Babesle berria du OBBk datozen hiru urteetarako

Urtero 5.000 euroko laguntza emango die Eguzkik eta hiru urterako sinatu dute hitzarmena.

Maiatzaren 28an, 11:30ean, OBB sofbol taldearen babesle berria aurkeztu zuten udal-etxean. Eguzki eraikuntza enpresa izango da OBBren babeslea datozen hiru urteetan eta 5.000 euroko laguntza emango die denboraldiko.

OBB taldeko ordezkari Elena Etxeberria oso pozik agertu zen aurkezpenean, izan ere, diru laguntza hori beharrezko dute aurrera jarraitu ahalizateko, ez bakarrik Oho-rezko Mailan dabilen taldeagatik, baizik eta, gehienbat, taldeko gaztetxoengatik, haiekin sofboleko haztegia bul-tzatzeke.

Gainera, uztailaren 3, 4 eta 5erako, Orion jubeniil kategorian jokatu den Espainiako Sofbol Txapelketa antolatzen

ari dira, eta ia ezinezkoa litzateke babeslerik gabe hori prestatzea.

Orion hainbat proiektu egin ditu dagoeneko Eguzki eraikuntza enpresak, esaterako, Baxoaldeko babes ofizialeko etxeak eta Zaragueta eskola ondoan egiten ari diren etxebizitza tasatuak. Enpresako ordezkariak adierazi zenez, herriak enpresarekin izan duen konfiantza eskertzeko, beharra duen talde bati horrelako laguntza ematea erabaki zuten, Oriorekin duten harremana sendotzeko. *Goierriko enpresa bat gara eta sof-bola zer zen ere ez genekien, baina, emakumez osatutako talde bat zela ikusita, berehala ikusi genuen horri heldu behar geniola, sortu ginenetik eraikuntza sektorean emakumearen presentzia indartzeko ahaleginak egin baititugu, gaineratu zuten Eguzkiko ordezkariak.*

Eguzki eraikuntza enpresa izango da OBBren babeslea datozen hiru urteetan eta 5.000 euroko laguntza emango die denboraldiko

PLAY OFF-ETIK KANPO

Maiatzaren 31n, Viladecans katalanen aurkako bi partidak galduta, bigarren postua galdutuz OBBkoek eta, horrekin, *play off*ean borrokatzeko aukera. Elena Etxeberriak esan digunez, partida bukatzean burumakur ziren, baina, pentsatzen jarrita, denboraldi ona egin dutela uste dute. Ekainaren 7an, 11:00etan eta 13:00etan, Antorcha liderrari irabaztera irtengo dira Orion, ligako azken partidatan.

LABUR

SQUASHA

Bi txapeldun

Zarauzko Squash Ligako txapeldunak dira larunbataz geroztik Iñigo Agirre eta Jose Luis Azkonobieta oriotarrak. Ligako onena izan da Agirre, bigarren urtez jarraian, azken partidatan Raul Parmori 3-1 irabazita. Azkonobieta, berriz, Kopako txapeldun berria da, Aitor Adriani aurre hartu eta 3-1 gailendu baitzitzaion.

Azken txanpa aparta egin dute oriotarrek: txapelketako azken saiora arte hutsean utzi ditu aurkari guztiak Agirrek; Jose Luis Azkonobieta, 3-0 eta 3-1 nagusitu zen.

HERRI KIROLAK

Heldu! Tolosan

Giza proba erakustaldi berezia egingo dute Heldu! taldeak eta Usurbilgoak ekainaren 20an, Tolosan. 1.000 kiloko harria arrastaka eman beharko dute 8 lagunek -800 kilo baino gutxiago izan beharko dute- zezen plazan. Tolosaldeko eta Zumarraga-Urretxuko kirolariak izango dituzte aurkari seietatik aurrera.

Bestalde, erakustaldi horretan bertan 120 kiloko harria jasotzekoa zen Idoia Etxeberria, baina medikuak aginduta, ezbehar baten ondorioz, ezin izango du oraingoz errekor saiakerarik egin.

TRIATLOIA

Maite Uranga

Maiatzaren 30ean jokatu-tako Emakumeen 1. Triatloman zilarrezko domina lortu zuen Maite Urangak, 40-44 urte bitartekoan artean. 38m 10s behar izan zituen Urangak proba bukatzeko.

JOSEBA UNANUE | MUNDUKO DARDO TXAPELKETAN JOKALARIA

“Arantza sartuta, amorrazioz bueltatu naiz Chicagotik”

Munduko dardo txapelketa jokatzeko izan zen Joseba Unanue maiatzaren 21etik 25era, Chicagon, AEBetan. Han bizitakoaz aritu zaigu.

Txapelketa baino lehen joan zineten Chicagora. Opor txikiak hartu nahi?

Behin haraino joanda Chicagoko hiria ezagutu gabe ezingo genuen, ba, utzi, ezta? Txapelketa egunetan ez da horretarako aukerarik izaten eta oporrak hartu genituen.

Horrez gain, bidaia erosoago egiteko eta ordu aldaketak ez zaitzan jota utzi, beharrezkoa da pare bat egun lehenago joatea, aukeran, leku berrira egokizeko denbora pixka bat ere nahi izaten da eta.

Zenbat jokalarik zineten?

Hiru kategoriatan jokatu zen txapelketa eta bakoitzean 500 bat jokalarik hartu genuen parte. Atzeritik joan gineno hotel berean eman ziguten ostatu. Asiarrek, europarrek, hegoamerikarrek, australiarrek... bata bestearen ondoko gletan egin genuen lo.

Mundiala mundiala da. Kirioak dantzan ibili al zenituen?

Txapelketa garrantzitsua izaten da mundukoa, egia esan, baina esperientzia harzen ari gara urteekin eta gero eta abilagoak gara urduritasunak kontrolatzen.

Zein jokotan aritu zinen?

Lehen egunean taldeen txanda izan zen. Hemendik bi lagun bakarrik joan ginenez –Migel Anjel Villimar eta biok– beste herrialde batetako bikoteraren bat aurkitzea zen jokatzeko era bakarra. Zorionez, antolatzaileen laguntzarekin, Tennessee estatuko bi jokalarirekin batera –Patrick eta



Joseba Unanue Chicagoko mundialeterako txartela lortu zuenean.

J. UNANUE

Hiru kategoriatan jokatzeko izan zen txapelketa eta bakoitzean 500 bat jokalarik hartu genuen parte

John– taldea osatu genuen. Iaioa zen aurrenekoa, baina bigarrenak taldea hankamotz utzi zuen. 128 taldetatik 13. bukatu genuen.

Bada gustura egoteko moduko emaitza, ezta?

Izan liteke, baina taldeko

Aurreneko zortzien artean ginela akatsa egin zuen nire bikotekideak eta akabo! Aurkariek ez zuten hutsik egin

hiru jokalarik nola jokatzeko ginen ikusita... emaitza hobea lortu genezakeela ziur nago. Johnek mila bider eskatu zigun barkamena, benetan sentitzen zuela besteok baino kaskarragoa izatea. Egia esan, eta hari ere hala esan genion, ez zen talderik osatuko huragabe

eta ez genuen modalitate hartan parte hartu ere egingo.

Esperientzia bezala, aldiz, apartekoa izan zen. Atzeritarrekin tratua egiteko eta aurkariek jokatzeko era ezagutzeko balio izan zigun. Gure artean gorabeherak ere izan genituen: partida lasai hasteko joera dugu guk eta haiek hasieratik, arriskatu egiten zuten, beharrik izan gabe.

Kategoria gehiagotan aritu zinen, ezta?

Bai, binakako *blind draw* cricketean eta banakakoan aritu nintzen. 128 parejatatik 7. egin genuen bikotekakoan eta 103. bakarkakoan, 512tik. Joan aurretik emaitza hauek lortzea sinatu egingo nukeen; baina, han egonda, ikusita binakako txapelketako garai izateko aukerak bagenituela eta egun borobila izaten ari ginela... Aurreneko zortzien artean ginela akatsa egin zuen nire bikotekideak eta akabo! Aurkariek ez zuten hutsik egin. Horrela bukatzeak jota utzi ninduen eta bakarkakoan eragina izan zuen horrek gero.

Hurrengo egunean, goiko kategoriako bakarkakoan ere aritu nintzen, antolakuntzari horretarako baimena eskatuta, eta han 43. egin nuen. Neukan amorruekin neure burua estutu nuen, zerbait egiteko azken aukera nuela eta emaitza hobea lortu nuen. Hala ere, txapelketako berotasuna, haserre, pasatzeko daukat oraindik ere.

Hemendik aurrera zer?

Orioko udako txapelketa jokatzeko hasiko gara hilaren 8tik aurrera, Unarren. Master eta amateur kategoriatan jokatu da eta Gipuzkoako eta Bizkaiko jokalarik onentsuenak ekartzea espero dugu.

JOSE ANTONIO IDURRETA | BASERRITARRA

“Gero eta merkeago erosten digute esnea”

Protestaka dabilta esne behiak dituzten baserritarrak. Horren atzean zer dagoen galdetu diogu Joxe Antonioren.

Zein da arazoa?

Hitz batean: ordaintzen diguten prezioa. Batetik, azken urte eta erdian pentsua garestia dago eta esnea, ordea, gero eta merkeago erosten digute. Bestetik, Asiak esne hauts pila erosten zuen, eta prezio altuan jarri zen esnea 2007-2008 artean. Horrekjendeak inbertsio handiagoak egitea ekarri zuen eta gehiago produzitzea; baina, krisia dela eta, orain gutxiago eskatzen du Asiak, eta Europan esnea sobera dago. Horrek prezioak behera egitea ekarri du. Baina zerikusi handiena esnea merkaturatzen dutenek, banatzaileek, dute.

Zer egiten dute, ba, hainbeste kaltea sortzeko?

Dendetara saltzen merkeenak izateko, esne gehiena erosten dute bere markapean edo marka zurian ontziratzeke. Kaiku markakoa garestiako salduko diete dendariei, baina ez guri gehiago ordainduta. Eta ez badugu hori onartzen, ez digute batera erosiko, eta ezin dugu dendaz denda ibili litroka saltzen. Ekonomia ondo doanean, prest egoten dira batzuk hemengo esnearen eta esnekien prezioa ordaintzeko, jakina; baina gaur diruz gaizki dabilena, ez.

Eta gobernuek ez al dute laguntzen?

Espainiako gobernuari ez zaio interesatzen esnearen prezioa garestitzea, beharrezko produktuen prezioa igotzeak itxura txarra ematen duelako. Haiengandik espe-



Familia eta kanpoko langile bat aritzen dira lanean Ubegun baserrian.

KARKARA

Baserrri bakoitzarentzat gero eta diru laguntza gutxiago dago

ranta gutxi dugu. Sektoreari ez diote garrantzirik ematen, ez dute baloratzen ingurumenean egiten dugun ezkutu lana, mendia garbi zaintzen eta abar. Europako Bata-sunean aurrekontua izoztuta dago, baina nazio berriak sartu dira; beraz, bakoitzarentzat diru gutxiago dago. Esnea produzitzeko kuota ere guk ordaintzen dugu orain; lehen

80.000 esne esplotaziotik 23.000 jaitsi gara eta 15.000 izatera iritsiko gara

Espainiako gobernuak ordaintzen zuen eta gure artean banatu.

Kuotak garestiak al dira?

Izugarrizko dirutza gastatu da kuota ordaintzen, baserri bakoitzak esnea produzitzeko eskubidea izateko bakarrik. Nork berea ordaindu du, eta orain esne dute kuota urtero %1 igoko dutela

Europan, 2015ean kuotak zeharo kendu arte. Astakeria itzela da hori: esnea erraz produzitzen dutenek itoko dute merkatua, eta mendi inguru-koak ezin izango du lehian parte hartu. Gainera, guk gero eta inspezio eta kontrol gehiago ditugu, baina edozein naziotatik ekarriko dute esnea, ondo jakin gabe zer nolako kontrolak pasa dituen. Teknologia berria saldu dute eta, ordainetan, esne, haragi eta zereal merkeak hartu. Ez dugu etorkizunik.

Baserritarrak beti negarrez esango lukete batzuek.

Ondo bizi zarete esaten digute, eta nik galdetzen diet: *Orduan zergatik gara gero eta gutxiago?* Krisia ez da hitz berria guretzat, eta lan lotua eta gogorra da baserrikoa, nahiz eta guk aukeratutakoa izan. 2006ko prezioa baino baxuagoa du esneak eta gastuak igo egin dira etengabe. Eusko Jaurlaritzak eta Diputazioak ere badute zereginik. Autopistako kilometro bat egiteko gastatzen dutenarekin sektorean gauza asko egin daitezke. Eta jendea ere sentsibilizatu behar da: bertako esnea garestia omen da, baina dendatik atera eta kafesne hartzen dute ia bi litro esneren prezioan.

Akatsa izan zen 80ko hamarkadan ia baserriguztiak esne behietara dedikatzea?

Inork ez zuen inor behartu, baina Espainian 80.000 esne esplotazio izatera iritsi ziren eta gaur 23.000 dira; haragietara eta ardietara pasa dira asko. Edadetuak ez dute inbertsiorik egin nahi eta gazteak, hutsetik hasteko, izugarrizko gastua egin behar du. Krisiak jarraitzen badu, 15.000 inguru izango gara.

ARRATSALDEKO JOLASETAN BINGOA EZ DA FALTAKO, ZIURRENIK

Lepo beteko dira Pagoeta eguneko bazkariko mahaiak

Mendi ibilaldiarekin, bazkariarekin, jolasekin eta erromeriarekin Pagoeta egun herrikoia antolatu du Udalak eta herriko plaza izango da festaren gune nagusia.

Ekainaren 7an, urtero bezala ekaineko lehen igandean, Pagoeta eguna izango dela eta, egitarau berezia antolatu du Aiako Udalak:

Goizeko 09:30ean, ibilaldia egingo da Pagoeta mendira, herriko plazatik abiatuta.

Eguerdian, txangoan gastatutako indarrak berreskuratzeke, bazkaria izango da plazan, 14:00etan. Edaria, parrilla, bazkaria prestatzeko beharrezko diren tresnak eta kafea antolakuntzak berak jarriko ditu, pertsonako euro bakarraren truke, baina jatekoa norberak eraman behar du. 220 lagunentzako tokia izango da bertan eta Udalak ekainaren 3ra arteko epea jarri zuen izena emateko, horrela, herritarrek lehen tasuna izan dezaten. Epea bukatzerako ez



Parrillak Udalak jarriko ditu, giroa herritarrek.

KARKARA

zen leku gehiagorik geratzen; beraz, lepo beteko da plaza bazkaritarako.

Arratsaldean, berriz, koardrilen arteko jolas erdi inprobisatuak izango dira. Bingoa

ere tartean izango da, ziurrenik, bazkal osteko ohitura baita.

Izer eta Alabier trikitilariekin erromeria izango da bukatzeko.

LABUR

MENDIA

Aia-Arantzazu

Aiatik abiatuta, Arantzazurainoko zeharkaldia izango da uztailaren 4an. Aurtengoa 25. edizioa da eta kamisetak aterako dituzte, parte hartzaile bakoitzari bana emateko. Izena emateko azken eguna ekainaren 21a izango da; Aiako Iturriotzenan edo Zarauzko Danamerken (Zigordia kalean) egin behar da, 20 euro ordainduta.

KROSA

8. Zarautz-Aia

Aiako eta Zarauzko kirol elkarteek antolatuta, Zarautz-Aia 8. herri krosa izango da ekainaren 14an, igandean. 11.315 metroko proba 11:30ean hasiko da eta izena irteeran bertan eman behar da, San Frantsizko kalean, 10:00-11:00, 5 euro ordaindu eta gero.

Sariak gizonezkoentzat eta emakumezkoentzat berdinak izango dira: trofeo bana eta 150, 120 eta 100 euro multzo bakoitzeko lehen hiruentzat.

AZKEN URTEETAN BAINO GAZTE GEHIAGO HURBILDU DA ERROMERIETARA

Denboraldiko azkena Aristerrazun

Solano musika eskolakoek eta Iker, Allur eta Unai Narbaizak osatuko dute azken erromeria bereziko kartela.

Ekainaren 7an, denboraldiko azken erromeria egingo da Aristerrazun eta berezia izango da, gainera. Hasteko, arratsaldeko 19:00etan, Solano musika eskolako dantzari eta trikitilariak emanaldia eskainiko dute. Gero, 19:00etan, Iker, Allur eta Unai Narbaiza trikitilariekin erromeria izango da, 22:00ak arte.

Aurtengo erromeria den-

boraldiak arrakasta handia izan du, besteak beste, ordu-tegiaren aldaketagatik. Denboraldi honetan hogeita bost saio izan dira eta momentuko trikitilari aipagarrienetakoe hartu dute parte. *Betiko jendea eta jende berria izan dugu Andatza auzoan eta azken sasoiaren baino gazte gehiago hurbildu da erromeriarekin, trikitiarekin eta festarekin gozatzerako, eta gure ohiturak sendotzeko gogoz, adierazi digute antolatzaileek.*

Hurrengo denboraldia urriaren 25ean hasiko da, igandearekin.



25 erromeria izan dira Aristerrazuko aurtengo sasoiaren.

KARKARA

AIAKO LEHIOA

Pagoeta eguna

Aiarrok festa zaleak omen gara, edozein aitazakiaz baliatu eta eguna geure kontura bota. Kaixo motel! Ba, bejondeigula! Zerbait ospatzeko daukana ez baitago gaizki eta ospakizuna elkarren konpainian egiten bada, hobe.

Gainera, Pagoeta mendi zaharraren magalean jaio eta bizi garenok, hain etxeko dugun mendiaren aipamena eginez, urtean behin festa egun bat antolatzea oso bidezko deritzot. Aspalditik datarren ohitura da gure herrian ekainaren lehenengo igandean Pagoeta eguna ospatzea. Goizean mendira igo, hartu arnasa sakon, hasi gozatzeko eta ikusi, antzinako giza aztarnak, megalitiko garaikoak. Milaka urtetik honuntz gu bezalakoxe gizon-emakume-

ak lur hau bera zapaltzen ari garela pentsatzeak deskriba ezinezko sentimendua sorrazten dit. Kristau ezaugarriak, gurutze txikiez osatutako bidea gurutze zuri handiraino. Gora iritsitakoan eta lainoek uzten badute –eguzkia puska baterako oporretara joana omen da– Euskal Herriaren zati polit ederra ikusi daiteke iparretik hegoaldera eta ekialdetik mendebaldera.

Mendira igo, hartu arnasa sakon, hasi gozatzeko eta ikusi, antzinako giza aztarnak, megalitiko garaikoak

Zuhaitzez josita dago dena, ez dakit zenbat motatakoak. Kontuz! azeri bat edo beste ere azaldu daiteke eta! Perretxi-koak ere aurki daitezke batzuetan, badakizu langatik aurrera jo, berehala eskubitara hartu bide zidorra, gora joan eta, ei... onttoa! *Kieto demonio*, hau duk hau zoriona. Denborazeinen erraz igarotzen den.

Baina, herrira jaitsi behar-

Gurutze zuri handi eder bat, Goi-goikoaren irudi besoak zabal-zabalik: *Bakea, Ongia eta Onespena denoi...*

ko da, ba? Zain egongo diran otordua prestatzen aritu direnak, elkarrekin bazkaldu eta arratsalde pasa, festa giroan egiteko, soinu eta kantua. Zarauztarrek ere bere-berea dute egun hau eta seguru asko herrira jaitsiko direla elkarrekin arratsaldea pasatzeko.

Hurrengo egunean lanerana eta jaia jator elkartzen dakiena ez baita edozein!

Gauzak horrela, badut eguneroko lotura Pagoetarekin eta hau da: lanetik etxerakoan, Iriondoko errebuelta pasa eta berehala jartzen zara Pagoeta mendiko gailurraren aurrean. Gurutze zuri handi eder bat, Goi-goikoaren irudi, besoak zabal-zabalik. Eten-gabeko ongietorria dario: *Bakea, Ongia eta Onespena denoi...*

IXABEL UNSAIN

TXOKOAK ETA JENDEA



Lehen Jaunartzea

Aurreko igandean, Asentzio egunean, argazkian dituzuen haurrek Lehen Jaunartzea egin zuten; egun berezia izan zen, dudarik gabe, berentzat.

Ezkerretik hasita, hortxe dituzue Maialen Gorostidi, Unai Uzkudun, Saioa Sayago, Alex Enparantza, Aitziber Fernandez, Aritz Gonzalez de Txabarri, Kepa Arruti, Lorentz Orbeagozo, Joseba Pagadizabal, Kepa Orbeagozo eta Iñigo Lertxundi.



Hogei urteko bidean herritar ugari pasa zarete Karkarako orrialdeetatik.

KARKARA

KARKARAK 20 URTE | HERRITARREI EGINDAKO GALDEREN EMAITZA

“Ia herritar guztiek ondo baloratzen dute KARKARA”

KARKARA TALDEA

Eusko Jauriaritzak euskarazko hedabideei zuzendutako hobekuntza azterketak –HEHOBA– egiteko dirulaguntza baliatuz, irakurleek KARKARARI buruz esateko dituzten iritzia, kexa eta gainerakoak jasotzeko erabakia hartu genuen, 2009. urtea hastera, aldizkariaren urteurrena gertu zela-eta.

Topagunea –Euskara Elkarteen Federazioa– eta proiektua sortu eta egin duen Aztiker enpresa bidelagun

20 urte egingo ditu KARKARAK aurtengo sanpedroetan eta herritarrek aldizkariak eta web orriaz duten iritzia ezagutzeko aukera paregabea irudituta, idatziz eta telefonoz galderak egin genizkien urte hasieran. Hara hemen horiek emandakoa.

hartuta, martxan jarri genuen lehen galdeketa urtarrilaren 23an: KARKARAREN 253. zenbakiarekin batera banatu genuen zortzi galderekin osatutako idatzia. 43 erantzun jaso geni-

tuen gure bulegoan; postaz batzuk, eskura ekarrita beste batzuk eta e-mailez ere bai bakarren bat.

Telefonozko galdeketak, berriz, otsailaren 12tik 28ra

bitartean egin zituzten Aztikerreko lagunek. Aian eta Orion errolatutako 15 urte-tik gorako 5.739 herritar ziren galderak egiteko hautagai; horietatik, zoriz, kale eta ariaren hurrenkeran eta sexuaren eta adinaren arabera oreka mantenduz, 687ri egin zitzaizkien inkesta, ahalik eta lagin zabalena hartuz. 186 aiarrek eta 501 oriotarrek erantzun zuten, jator.

Bi galdetegi kasuan, herritarrek erakutsitako presuntasuna eta jarrera ona azpimarratzekoa izan da.

IDATZIZ

Idatzizko 43 galdeketa jaso genituen otsailaren 13a bitartean eta emakumezkoenak izan ziren horietako gehienak: %60,47. Adinari dagokionez, gazteek, helduek eta nagusiek berdintsu, pareko erantzun zioten deialdiari.

Aldizkariari buruzko galdera orokorrei erreparatuta, estimatutako atalen artean, bertako informazioa ematea eta gertutasuna estimatzen dira gehien. Herriko kontuak, elkarrizketak-erreportajeak, gutunak, Aiako berri eta argazki zaharra dira, hurrenez huren, atalik gustukoena. Iritzi artikuluak eta *ezpalak* atala dira, ordea, gutxien irakurtzen direnak. Publizitatea gehiegizkoa dela ere uste du hainbatek.

Iritzi editorialak ere eman du zeresanik: politika eta eskola gaietan inpartzialtasun falta erakusten duela KARKARAK adierazi baitute 7 lagunek, hau da, %16ak.

Iradokizun ugari ere bildu ditugu: besteak beste, *Herrian galdezka* berriz egiteko, gazteentzako txokoa eta euskara ikasten ari direnentzako tartea eskatzen zaizkigu. Zati batean bada ere, KARKARA gaztelaniaz egiteko eskaera ere jaso dugu.

TELEFONOZ

Telefonozko galdeketak euskaraz nahiz erdaraz-telefonoz bestaldekoak nahi bezalagegin zituen Aztiker enpresak, otsailaren 12tik 28ra bitartean.

KARKARAREN ezagutza eta irakurtzeko ohitura izan zen aztertu zuten lehen gaia. Horrelajakin dugu Orioko eta Aiako ia herritar guztiek (%99ak) ezagutzen dutela aldizkaria; horietatik %91,3k irakurri edo gainbegiratu duela inoiz; eta bostetik lau herritarrek baino gehiagok azken zenbakia ere irakurri duela.

Txostenaren arabera, adin tarte guztietara indartsu iristen da KARKARA, baina gazteek hobeto ezagutzen dute eta gehiago irakurtzen dute. Aipagarria da, baita ere, erdalduen eta elebidun hartzaileen

-euskaraz ulertu bai, baina hitz egiten ez dutenak- artean lortzen duen arrakasta, euskara hutsean izanda ere, horietako gehienek ezagutzen eta irakurri izan baitute aldizkaria. Gainera, euskara sustatzeko KARKARAK egiten duen ahalegina eskertzen dute eta euskal kulturara hurbiltzen dituztela sentitzen dute.

Aldizkariak merkatu zabaldua ere erakutsi dute datuek: ikasketa maila, sexua, adina edozein direla ere, pareko irakurtzen baitu jendeak KARKARA.

SARBIDEA

KARKARAREN zenbaki bat, batez beste, zenbat jende irakurtzen duen ere aztertu dugu egitasmo honekin. Inkestaren emaitzen arabera, herritar guztiak kontuan hartuta, %82,1ekoa da gure aldizkariaren sarbidea. Elebidunen artean, hau da, euskaldunen artean egingo balitz, %84,8raino igoko litzateke kopuru hori. Bestalde, Aia eta Orio, bi herriak konparatuz, sarbide handixeagoa dugu Orion.

Kultur kontsumoari begiratuta, berriz, elebidunen artean, euskarazko telebista eta irratia ikusteko eta entzuteko joera dutenek gehiago irakurtzen dute KARKARA.


Egunkarien irakurleen bostetik lau baino gehiagok irakurtzen du KARKARA; baina, Urola Kostako Hitza eta Berriako ia irakurle guztiek irakurri zuten gure aldizkariaren azken zenbakia.

IRITZI OROKORRAK


KARKARA inoiz irakurri duten Aiako eta Orioko herritarrei aldizkaria 0tik 10era baloratzeko eskatuta, oso ongia (7,7) eman diote, batez beste: 610 lagunetatik 4k bakarrik utzi dute gutxi jarrita; nahikoa eman diote 6 herritarrek; ongi, 39k; oso ongi, 455ek; eta bikain merezi du 106 irakurlearen iritziz. Aldizkaria bi herrientzako gauza ona dela diote inoiz irakurri edo gainbegiratu duten guztiak.

KARKARAREN funtsezko helburuetako bat da aldizkaria


Aldizkariaren ezagutza eta irakurtzeko ohiturak




Euskara gaitasuna



Udalari emandako tratamendua



Aldizkari plura



irakurle guztientzat irakurterraza izatea eta txostenaren arabera, badu saria gure ahaleginak. Irakurle gehienek (%77,6k) inolako arazorik gabe ulertzen dute aldizkariako euskara. Oro har, zailtasun handiago dituzte irakurtzeko oriotarrek aiarrek baino.

Bestalde, erdiak baino

gehiagok batua baino gipuzkera erabiltzea nahiago luke. Batuarekiko apustua %3,3ak besterik ez du egiten eta oraingo estilo berarekin, batua, baina gure herrietako hitzak lehenetsiz, %6k jarraituko luke.


Diseinuari dagokionez, elkarrizketatutako ia guztiek

Irak kontuan hartuta, sailkapen orokorra


MAITZASUNA EHUNekoAK (%)

Ez dute eragutzen	7	1
Ez dute inoiz irakurri	58	8,4
Irakurri dute, azken alea ez	58	8,4
Azken alea irakurri dute, 15 min edo gutxiagoz	148	21,5
Azken alea irakurri dute, 15 min baino +	416	60,6
Guztira	687	100


Aldizkariko euskara ulertzeko gaitasuna



Plurala edo lerrotua



Aldizkariaren balorazioa



KARKARA

(617tik 598k) gustuko dute egungo diseinua eta egokia iruditzen zaie testuak aurkezteko modua 600 laguni.

OBJETIBOA ETA PLURALA

Albisteak objetibotasunez tratatzen ditugu 516 herritarren ustez eta 466k aldizkari pluralizat dute KARKARA. Iritzi

berekoak ez diren irakurleen artean, ezker abertzalearen alde egiten dugula dio ia erdiak; EAJren alde ia beste erdiak, eta gainerakoek ez dute garbi zeinen alde. Erantzun bat baino gehiago eman zuten jendeak.

Herriko Udalarri emandako trataerarekin ere ados dago

IDATZIZKO GALDETEGIETAN JASOAK

GEHIEN GUSTATZEN ZAIZUNA

“Albiste eta gai interesgarriak lantzen dira eta gertutasunarekin. Beste era batera esanda, herritik oso hurbil sentitzen da. Bestalde, preziorik ez du Jokin Salsamendiren *Moila bazterretik* iritzi atalak”

“KARKARatik gehien gustatzen zaidana diseinua da; hala ere, barruan aldaketa batzuk egingo nituzke. Web orria ere ondo dagoela esan behar dut”

GUTXIEN GUSTATZEN ZAIZUNA

“Gutuneren atalari hainbatek ematen dion erabilera. Tristura sortzen zait herriko horrelako aldizkari batean batzuen kontrako –beti kontrari izaten dira, edo ia beti– irainak eta informazio manipulatuak ikusteak”

“Zerbait erdaraz jartzea gustatuko litzaidake. Uste dut hona bizitzera etortzen garenok eta aldizkariko bazkide garenok ere badugula zerbait ulertzeko eskubidea”

“Azken bizpahiru urteetan asko jaitsi da KARKARA. Gaztetu nahi izan duzuela ematen du, baina aldizkaria arindu egin duzue. Orain gutxiago irauten dit, interesa galtzen ari den seinale”

BESTELAKOAK

“Azkenaldian, etxean jaso ez eta kultur etxera joan behar izan dugu jasotzera”

“Politikan gehiegi sartzen dela uste dut. KARKARAK inpartziala izan behar du eta politikaz hitz egin behar badu, alderdi guztiekin izan dadila”

“Ondo legoke euskarazko idazkera ikastaroa egiten duten lagunei idazteko orrialdeak eskaintzea. Horretarako mailakatutako testuak prestatzea eskatuko nuke; hala nola, ipuinak, narrazioak...”

irakurleen gehiena (%84,8). Kontra aritzea leporatzen digutenen (%8,1) eta alde ari garena (%7,1) esaten dutenen balantza ere orekatua da. Objektiboak ez gabela dioteneke, Aian udalaren aldeko jarrera eta Orion kontrakoa dugula diote.

ATALEZ ATAL

Gutunak, kirolak, elkarrizketak, Aiako albisteak, herriko kontuak eta iritziak dira atalik gustukoena irakurleentzat. Gutxien baloratutakoan artean daude, bestalde, Aiako leihoa, publizitatea, herriarra eta zoritxarrak.

Diseinu orokorrari begiratuta, dena gustatzen zaiela adierazi dute KARKARA inoiz irakurri duten gehienek (%21,7k), eta, orokorrean, argazkiek pizten dute interesik handiena.

Bestalde, idatzizko galdetetan agertu bezala, informazioa jasotzeko gertutasuna azpimarratu dute irakurle askok (%17k).

Aldizkaritik gutxien zer gustatzen zaien galdetuta, berriz, irakurleen bi herenek dena dagoen bezala utziko luketela erantzun zuen.

Atalen artean, kirola eta iritzia dira irakurlea gutxien erakartzen dutenak.

Iritzi negatiborik gehien politika gaiek biltzen dute, %6,9k politika gehiegi agertzen dela uste baitu. Horrez gain, Aiako albisteak ere gutxitu beharko lirakeela dio %3,2k; KARKARA euskara hutsen izatea ez zaio gustatzen %5,8ri; eta kexak eta kritikak gauza desegokiak esateko erabiltzen direla, %2,4k.

ARGAZKIAK, AURRENA

KARKARA eskuartearen lehen aldiz hartzean, azala begiratu eta gero, argazkiak begiratzen ditu, batez ere, irakurleak. Gutunen tartea etortzen da ondoren. Gaiei begiratuta, tokiko albisteek pizten dute interesik handiena. Zerbitzuetako informazioa ematea eta tokiko jendea agertzea ere gustuko dute irakurleek. Politika da, bestalde, interes gutxien sortzen duena.



KARKARA egiten duen taldea. Ez gaude denak; baina gauden guztiak gara.

KARKARA

Artikuluetan, berriz, argazkiei lotutakoak dira gustukoena, berriz ere: argazki bildumak... eta idatzizkoetan, formatu laburra saritzen dute, erreportaje eta elkarrizketa luzei balorazio eskasena emanez.

KARKARA NORK ARGITARATU

Inkestaren arabera, galdetutakoan %88,7k ez daki nork argitaratzen duen aldizkaria eta dakitenen artean, Udalak argitaratzen duela uste du %12,9k. Erantzun zuzena 43 lagunek eman dute.

Finantzaketaz galdetuta, irakurleen %77,1 KARKARA etxean jasotzearen truke ordaintzeko prest dago. Bestalde, erakunde publikoek KARKARA diruz lagundu behar luketela uste dutenen artean (%98,9) bostetik lauk udal erakundeek diru gehiago eman behar lioketela uste du.

KARKARA.COM, ESKAS

Egindako azterketak internet urruti samar geratzen dela adierazi digu, elkarrizketatuen ia erdiak ez baitu inoiz erabili. Erabili dutenen arte-

an erdiak baino gehiagok ez du inoiz karkara.com atarira jo; hilean behin gutxienez, begiratu du %21,8ak eta %12,7ak asteen behin.

Gaurkotasuna da web orriko aipagarriena erabiltzaileen ustez eta atalei dagokienez, argazkiak eta jendearen iritziak begiratzen dituzte gehien. Kontrako aldean, iritzi iraingarriak eta batzuek ematen dioten erabilera desegokia da gehien aipatutakoa. Foroak ere zer hobetua baduela agerian utzi dute erabiltzaileek.

KARKARA

Gaziak eta gozoak

2004ko urriaren 4a: 04-05 ikasturtea, 173. zenbakia, Eneritz, Jabi, Ana G, Pat, Miren, Ana I, Jon, Eli, Nerea, QuarkXPress... eta lehen egunak eragindako nerbioak, kiloka. KARKARAN lur hartu nuen egunaz horixe dut gogoan. Zenbaki batzuk joango ziren lasaitu eta lantokian eroso sentitu aurretik. Lantokian diot, lanpostua eta boluntarismoa bereizi nahi nituzkeelako. Izan ere, KARKARA boluntario batzuk sortu zuten, haietako zenbait hor dabilta oraindik eta nik soldata baten truke sinatu nuen kontratua. Zuetako gehienok bezala, adiskide.

Baina laster sentituko nintzen proiektuaren parte. Hondar ale bat Orioko hondartzan, baina parte. Lehen buruko minak ere laster iritsiko ziren eta lankide fidel izango nituen bulegoko giltza bueltatu nuen egunera arte. Horrela jabetu nintzen KARKARAK benetan duen balioaz; sorpresa atse-



PATXI URANGA
KARKARAKO LANGILE OHIA

ginak, ez hain atseginak, hitz politikak, ez hain politikak, pozak eta buruko minak tartekatuz.

Luze, luzeegi joko luke erdiak aipatzeak, asko ahaztuak ditut jada, baina badira betiko iltzatuta geratu zaizkidanak: Udalarari egurra eman behar geniola esanaz erdi garrasika etorri zen emakume polemiko haren bisita desatsegina (askotan etorri zen);

senide batek Korrika 15aren harira argitaratutako portadak EAJrekin genuen konplizitate portada berberak ezker abertzaleari hauspoa ematen ziola esan zidan beste hura; zinegotzi batek Udalarekin zerikusia zuen albiste oro argitaratu aurretik berari erakutsi geniezaion exijituz ematen zigun matraka; KARKARAREN ildoan aldatuko nuenaren itxaropena azaldu zidan haren komentarioa... Hori izan baita KARKARAN bizitakoaren alderdi itsusia: egindakoa etengabe epaitua izanaren sentipena. Alde guztietatik.

Baina on askoak ere izan dira: Lokok dozena erdi zerbeza oparitu zigunekoa, Ertzako Pilar Lore eta biontzat oparitxo banarekin azaldu zitzaigunekoa, noiz edo noiz idatzitakoengatik tarteka jasotako kritika gozoak, zenbaiten irribarreak eta animoak... eta garrantzitsuena, herria hobeto ezagutu eta herritar asko deskubritu izana. Herri bere-

ko biztanleak besterik ez ziren asko ezagutu eta haietako askoren balioaz jabetu izana. Onerako eta txarrerako. Hori guztia eta gehiago eman dit KARKARAK bertan izan naizen artean, nik KARKARATI baino gehiago, seguruenik, nahiz eta saiatu nintzen nuena ematen, arrasto positiboa uzten. Lortu ote nuen? Auskalo, baina aski eta soberan zait horrekin.

2008ko irailaren 17a: 08-09 ikasturtea, 245. zenbakia inprentara bidali berria, nekea buruan, agurrak dakartzan sentimendu gazi-gozoak, zakukada bete bizipen etxera eta aldizkari txiki hau osatzen dutenei nire esker ona.

"KARKARA boluntario batzuk sortu zuten, haietako zenbait hor dabilta oraindik eta nik soldata baten truke sinatu nuen kontratua. Zuetako gehienok bezala, adiskide"

ALTXERRI
Karta eraberrina
Asteburuan, egundi eta gantetan,
merru bereziak
943 83 07 62

Alustiza Autobusak
Alustiza Bidaiak S.L.
Autobus litera eta
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.
Tel. 943 13 28 93 / 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01 - 656 78 29 99

uranga
autozerbitzua

Aliprox
Euzko Gudar Jalea 13-15
01010
943 83 28 75

AMILIBIA
ONTZIALAK S. L.
koi portuaren proiektu
eta instalazioak
goi mailako lehiaketan
urrain-ontzak

Olasbagaegia auzoa, 52
34 943 83 08 29
faxa 34 943 89 40 81
amilibia@amilibia.com
www.amilibia.com

ADARRETATIK HELDUTA

No mames, wey!

Ahoa tapatzeko masakarak, Osasunerako Mundu Erakundearen arriskuen eskalan 5. maila, klaseak eten, museo, antzoki, zine zein edozein toki publiko erabat itxi... Oraindik oilo-ipurdia jartzen zait orain hilabete inguru hemen Mexikon bizitu genuena oroitzen dudanean.

Gogoan dut dena hasi zen eguna. Osteguna zen, gaueko 00:30ak inguru, gurutze gorrian nengoenean asma atake baten ondorioz. Medikuak honela esan zidan: zortea duzu, bihar gutxiezez ez duzu unibertsitateara joan beharrik, klaseak eten dituzte influenzaren ondorioz! Eta ni, nola ez, gustura aterantz ospitaletik, zer gertatzen zen guztiz ondo ulertu gabe. Hurrengo egunean hasi zen, ordea, kaosa. Arratsaldeko 17:00etan jasotzen nuen unibertsitateko lagun baten deia Calderon presidentearen hitzak telefonoz eman nahian. Arriskuan geundela, Osasunerako Mundu Erakundeak alerta piztu zuela, brote baten aurrean geundela, klaseak maiztaren 6 arte eten zirela...

Egia esan, hori entzun nuenetik maiztaren 6ra bitartean -hau da, 10 egun inguru- bizitu nuena ezin dut guztiz ondo oroitu. Sekula ez nintzen horrelako *shock* egoera batean aurkitu. Egun batetik bestera amets eder batizaten ari zena inoiz ahaztuko ez dudana amesgaizto



GARAZI URRETABIZKAIA
IKASLEA

Mexikora ikastera etorritako jendea etxera itzultzen hasi zen... kuarentenan egon behar izan genuen etxean sartuta

Ez zitzaidan buruan kabitzen honelako mundu mailako kaosa sortu ostean egun batetik bestera dena konponduko zela pentsatzea

bihurtu zen: nirekin batera Mexikora ikastera etorritako jende asko etxera itzultzen

hasi zen, egunero jasotzen genituen familia zein unibertsitatearen deiak, zer moduz geunden jakiteko, etxean sartuta kuarentenan egon behar izan genuen...

Dena azkarregi pasa zen, hasieran hamabilagun ginenak lau izatera pasa ginen konturatzerako. Azken agur expressak, malkoak, desorientazioa, estresa... Eta bitartean, kalean bi iritzi. Gu bezala guztia exagerazio bat zela pentsatzen zutenak, beldurrik ez zutenak, dena egun batetik bestera pasako zela ziur zeudenak. Eta guztiz aurkakoak, hau da, gobernuak gauza asko ezkututzen zituela pentsatzen zutenak, esaten zutena baino grabegoa zela gauza konbentzitutak zeudenak, paranoikoak. Baina bat edo bestea pentsatu, argi zegoen: inork ez zuen gobernuaren hitza sinesten.

Horregatik geratu nintzen hemen etxera itzuli gabe. Guztia oso arraroa egiten zitzaidalako, ez zitzaidalako buruan kabitzen mundu mailako kaosa sortu ostean egun batetik bestera dena konponduko zela pentsatze hori. Eta harro nago geratu izanaz. Bost hilabete daromatzat munduko hiririk handien eta kutsatuenetakoa eta denetik bizitu dut: metro bagoien leherketa, 5.9ko bi lurrikara indartsu, ditxosozko *gripe porcina*... Baina ez dut etxera itzultzeko gogorik. Azken batean, egia da: Mexiko majiko!

NIRE HONETAN

Etxeko bihurtuta

KARKARAK 20 urte betetzen dituela eta, gure aldizkariari buruzko azterketa sakona egin du Aztiker enpresak eta, emaitzak ikusita, gustura, oso gustura egoteko arrazoiak baditugula iriditzen zait.

Datu asko dira azterketak eman dizkigunak eta, zalantzarik gabe, oso baliagarriak izango zaizkigu gure lana hobetzeko; baina nire zutabe honetan ez dut datu horien analisirik egin nahi, baizik eta aprobetxatu nahi dut egokiera hau zuei guztiei -aiarrei eta oriotarrei- eskerrik beroena emateko. Azterketa egiteko momentuan erakutsi duzuen prestutasuna eta jarrera ona azpimarratu dizkigute behin eta berriz Aztikerrekoek eta esan digute, KARKARAREN izenean deitzen zutela esan orduko, parez pare zabalik aurkitu dituztela ateak.

Hogei urteko bidea egin dugu elkarrekin eta ezagun da 'etxeko' bihurtuta gaudela zuetako gehien-gehienentzat. Bagenekien lehendik eta orain berriro erakutsi diguzue. Zer gehiago eska dezake gurea bezalako herri-komunikabide batek? Oker eta guztiekin ere etxekotzat hartu gaituzue, gozo, eta hori bezalako oparirik ez da guretzat.

Mila esker.

ANA G. DE TXABARRI

MOILA BAZTERRETIK

Tolosako bixiguk



JOKIN SALSAMENDI

Igandean moila bazterra utzi eta Orián gora Tolosara joan nintzen bazkaltzera. Eta ze ikusiko eta ijitoanonahi!

Aurrena Goenkale kendu ziguten. Orain Bixigu eguna... zer eramango dute hurrena tolosarrek? Barra berria?

Arraun kluba? Auskalo!

Txantxaktxantxa, hala ere turismoa bultzatzeko estrategia horiek ez dakit ez diren zirko mediatiko huts bihurtu. Ez dakit Bisigu Egunak sortzen duen gastua adinako irabazirik ematen dion herriari. Dena den, turista aurki aspertuko da eta atera beharko dira beste egun batzuk. Sagardoa usurbildarrek hartu zuten, txakolina eta lapak getariarrek, berdelak Mutrikun, txuleta eta babarruna Tolosan... Konpentzia handia inguruan.

Baina bada gai bat guregura, benetan oriotarra eta turistarentzat ezezaguna. Garai zaharretako ezezioa, gaur egun gainbehera egina, baina tradizio handikoa: kontrabandoa.

Johnnie Walker whisky botilak jarri daitezke plazan

salgai eta Winston tabako pakete gorri-gorriak, arrano eta guzti. Erriean Marlboro kartoiez betetako kartoizko kaxak aska daitezke marea-goran eta motorren erakusketa egin daiteke kaian. Gainera, iluntzean, marea betetakoan, moila bazterrean deskargatu ditzakete estraperlo fardoak eta erakutsi nola oriotar gazteek betetzen zituzten kamioiak bixi-bixi. Edota zigarro bustiak nola lehortzen ziren, edo antxotarako sarea boteaz ze tabako harrapaketak egiten ziren. Dena agerian eta dena anonimo.

Hor Orioko tradizio garbian oinarritutako ekitaldi historiko antropologikoa. Seguru herria beteko litzatekeela tabako eta alkoholean oinarritutako festan eta salmenta ugari egingo zirela.

Ez dakit Bisigu Egunak sortzen duen gastua adinako irabazirik ematen dion herriari... turista aurki aspertuko da eta atera beharko dira beste egun batzuk

Baina isil-isilik, bolo-bolo zabalduz notizia horrenbeste prentsa, irrati eta protagonismorik gabe. Seguru herriko tabernak eta jatetxeak beteko liratekeela. Seguru negozio asko itxiko liratekeela. Seguru... baina jakina... BEZik gabe... IVARik gabe alegia!

Automóviles ZARAUTZ
CITROËN ZERBITZU ORJINALA
bixiguk darrak
tutur darrak
bixiguk

ZARAUTZ, tel. 943 13 13 50

Carmen eta Txomin ARRAZDEGIAN

943 83 05 37 / 943 83 27 47

ERROTA

- Eztei ospakizunak
- Banketeak
- Karta zabala
- Eguneko menua (lanegunetan)
- Oheak

Tfnoa: 943 83 54 65

A&E
The Academy of English

Dorronsoro Denda

196 letik zure endean

AUKERA HANDIAGOA FRUTATEGIAN

Tel 943 83 09 37

Pinturak ELKAR

pintura eta paperatze lanak zoru leunketa

Abendako industrialdia
943 83 08 45 / 910 00 23 35
ZARAUTZ

A&E
The Academy of English

Justo kalea 3, Zarautz | Ibañe Ondo pl. 8 Orio

Tel. 943 00 42 44
943 83 51 91

Gabon
TABERNA
plater kultural aspirtxoak

Tfnoa: 943 83 06 09

bodegas ERRASTI, S. L.

Eskualderako banatzailea
Zudugarai, Getariako txakolina
Ilagares, ardo gorri nafarra
Bodegas Gailur: Señorío de Laurgain
Gailur eta Ardandegui,
Arabar Errioxako ardoak

Eusko Gudar, 46 ORD • 943 83 03 86 / 83 59 57 • E-posta: bodegaserrasti@euskalmet.net

Etengabe zapaltzen gaituen sistema patriarkal baten menpe bizi gara, eta, hori aldatu nahi badugu, horren jabe izan behar dugu. Jendarte berri bat eraikitze bidean antolatze konpromisoa hartzea ezinbestekoa da eta feminismoa eta emakumeen eskubideen aldeko borroka aurrera eramateko espazioa izan daiteke gaztetxea. Surtuko den leku berri horretan harreman eredu berriak landu beharko dira, baina errespetuan eta berdintasunean oinarritutako harremanak izateko, guk guztiok gure partetik jarri beharko dugu; landu, ikasi eta hezi egin beharko

dugu. Gaztetxean ere, emakumeon aldarrikapenak present egon daitezela, oraindik orain gure egoera ez baita batere ona.

Gaztetxeak parekidetasunean oinarritutako jendarte eredu berria lantzeko aukera emango digu. Horretarako, emakumeok, gazteok eta herritarrok jaiki, eta lotu gaitezen gaztetxe berrira!

EDIDER SALEGI
(ORIOKO XALTXERAK-EKO KIDEA)

Kofradia ondoan bidea moztuta

Oriok duen gauzarik onenetakoa da erriorearen bi aldeetan, hon-

dartza aldera edo Ortzaika aldera, ur ertzean paseoan ibiltzeko dagoen aukera. Hori zoragarria da. Herri gutxi daukate horrelako aukerarik.

Baina ume-kotxearekin ibiltzen garenontzat, batzuetan ezinezkoa izaten da paseo hori osorik egitea, puntu beltz bat dago herriaren erdierdian, justu arrantzaleen kofradiaren aurretik. Han, askotan, autoen bidea muga-tzen duen katearen eta erriorearen artean kamioi, furgoneta eta automobil asko egoten da aparkatuta, lan orduetan bezala lan orduetatik kanpo, baita aste bukaeretan ere. Eta plaza aldetik ume-kotxeare-

kin goazenok automobilen bidera atera behar izaten dugu, non eta justu automobilerik kurba estua egin behar duten tokian. Horrela ibiltzea arriskutsua da oso. Gero, kofradiako arkupeetan sartzea ere ezinezkoa izaten da batzuetan, aparkatutako autoek ez dutelako tokirik uzten, eta Leundaneko karkaratik joan behar izaten dugu.

Ez al daukagu eskubiderik inguru horretan erriore ertzean ibiltzeko? Orioko Udalak ez al luke zerbait egin behar arazo hori konpontzeko?

J.P.

Peiuharia eta estetika mistoa



Tintak egonaldiak eta koronak egonaldiak
- Artifizialak eta tinta luak egonaldiak
- Azkarrak egonaldiak
- Pedikura
- Depilazioa

San Nikolas, 9. Tel: 943 83 31 70



Zaragueta Eskola Orrio

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezketuntza.net

EGIN EZAZU ZURE PUBLIZITATEA

KARKARA

943 83 15 27

tel/fax: 943 89 00 69
Ekoizketa, 4. 20.810 ZARAUZ



URBIDE

ITURGINTZA, BEROGINTZA
GASA, BAINU ERAKUSKETA

Sukalde eta bainuen erreformak

XANTI MUJIKA

Igeltseritza

699 46 76 21
943 13 10 37



ZAPATA KONPONKETAK

Talantzuak: 09:00 - 13:00 eta 16:00 - 19:00
Larunbeteak: 09:00 - 13:00
Berritxo ospatuak: Oso



TALER MEKANIKOIA
MANTEROLA S/L

TYCROKAK - BALBUAK

Sanctiago ezuzoa - 18 postakutua
Tel. 943 830 743
Fax. 943 134 634
E-mail: mmanterola@euskalnet.net
20 810 ORIO - GIPUZKOA

TMM

AENOR
180 9000

Eskerako balbula
AENOR kalitate ziurtagiriduna

URANGA

burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Euzko Gudari, 5



TANATORIO ZARAUZ

EUROFUNERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbizu orokorrak

- * Donostia eta probintziako ospitaleetan
- * Aldeorako zerbitzua
- * Belatorio gelak
- * Koroiak, eskolak, tramitazioak...

Araba kalea, 35 Zarauz

Tel: 943 88 48 37 / Fax: 943 88 49 43
e-mail: harnagik@harnagik.net

SOLOZABAL
autoeskola



Euzko Gudari, 30-1, ezk
telef: 943 83 08 12

FISIOTERAPIA - Garbaitz Arriategi eta Naitala Wierzen
NUTRIZIONISTA - Garbaitz Arriategi



sinergia investigacion fisioterapia

ibai ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 ~ 685 71 85 95



1953ko Orioko arraunlariak

Arraunlariak dira argazkian agertzen direnak, 1953an Orioko traineruan eta trainerillan ibiliak.

Urte hartan (ere) Kontxako bandera irabazi zuten, eta horrelakoetan ohikoa izaten omen zen jatetxeek eta tabernek txapeldunak gonbidatzea eta bazkari ederrak eskaintzea. Antza, egun ere eusten zaio ohitura horri.

Ez dugu lortu jakitea

non, baina omenaldi horietako batean egindako fotoa da goikoa.

Atzean zutik, ezkerretik eskubira: Alejandro Oliden, Inazio Sarasua, Bautista Oliden, Aiako Azkue baserriko semea, Patxi Urdangarin eta Joxe Muxika.

Erdi makurtuta: Antonio Oliden, Klaudio Etxeberria, Bixente Zunzunegi, Bixentiko Elizondo eta Antonio Oliden.

Aurrean makurtuta: Joxe

Garate, Rafael G. de Txabbarri, Joakin Fresnedo, Manuel Muxika eta Esteban Azkue.

ARGAZKIA: ARTXIBOKOA
INFORMAZIOA:
RAFAEL G. DE TXABARRI

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

KARKARA

AHOLKULARITZA
Fiscalia, laborala, kontablea

Eugenio Garmendia

ASEGURU ARTEKARIA

IBAI ONDO, 1
Tel: 943 83 44 66 - 943 83 49 17

jatetxea
logelak

gazteategi

Elkano suzua
943 13 16 06

Igo zaituz hoize berrietara!

Galerria I

943890416-677149334
galerria.lorio@hotmail.com

KRITIKA



Argazkian antzematen ez bada ere, Capsulak jotzen zuen bitartean jendez lepo zegoen Tarin taberna.

KARKARA

Rockumentalak: rock'n roll zaharra egungo bizipenetan

Zarauzko Rockumentalen bigarren zikloa martxan da eta izen egokia du, dokumentalek, zuzenekoek eta argazki erakusketak garai bateko rock'n rollak egungo musikan duen eragina ikusteko modu paregabea baita.

Ekainaren 19ra bitarteko ostiralean, 22:00etan, dokumental bana emango dute Modelo Zineman eta, 00:00etan, zuzeneko kontzertuekin gozatzeko aukera izango da Tarin tabernan.

29an, musika garaikidearen oinarritzat hartzen den

Manchesterreko *Joy Division* talde ezagunaren inguruko dokumentala ikusi nuen. Taldearen historia baino, Ian Curtis abeslariak bere buruaz beste egitearen ustezko arrazoiak ziren filmaren oinarri, eta zeharo harritu ninduen ezinegon horiek ikusleari transmititzeko filmak duen indarrak.

Egun berean, Capsula; bi argentinarek Bilbon sortutako taldea. Kontzertu amaieran taldearen agerraldia definitzeko erabili nuen hitz bakar hori erabiliko dut: latza! Beste behin ere, ez

zidaten hutsik egin.

Ekainean, Neil Youngen *CSNY déjà vu*, *The sex pistols*en *The filth and the fury* eta Itoizen inguruko dokumental izango dira eta kontzertutan Krell, *Discipulos de Dionisos* eta *Alligators*. Ekainaren 21a arte, *Rockaren aztarnak* Zarautzen argazki erakusketa ere izango da Photomuseumean.

Bejondeiela guztia antolatatu duten *I love rock* elkartekoei, tartean Javier Ibarguren oriotartuari, rocka hainbeste maitatzeagatik.

MIKEL ARANZABAL

IKASLEAK IDAZLE



EDURNE KARRERA |

DBH 4. MAILAKO IKASLEA

Krisiaren eragina udan

Krisia, krisia eta krisia. Azkenaldian, besterik aditzen ez dugun hitza da gure inguruan. Telebistan ez bada, irratian, irratian ez bada etxean, etxean ez bada kalean...

Eta gezurra badirudi ere, aurtengoan, hitz hori, udako hiztegiaren zati bihurtu da dagoeneko. Asko eta asko izango baitira udako oporrik gabe geldituko diren pertsonak. Eta horrek, turismoan, eragin zuzena izango du, zeren udako oporretako diru sarrerak, asko murriztuko dira.

Gainera, adituek diotenez, arazo horren konponbidea, nahiko urruti dago, zoritxarrez.

Hala ere, dena ez da beltzez margotu behar, zeren uda aprobetxatzeko mila modu daude, eta hondartzara joateko ordaindu behar ez den bitartean, ez dago zertan arduratu.

Goizeko
KAFETEGIA
943 83 28 55
Aita Lertxundi, 33. bulego ORIO
Autobus parada ondoan

HAIZE BERRI
taldeko-jarduerak-kultergoa
Plaze konbinatuak,
bekatak,
hamburgerak,
razioak,
eguneko menua...
eta etxera eramatzeko zerbitzua!
Bilbo, Leizola, 6. bulego | 943 83 31 03 | Aholku gurekin!

ITZIAR
kirolak
Tel. 943 83 31 03

Joana Murgiondo
Aseguru-agenika
ASEGURUAK
C C I
CARASA ELVIELLA SOCIEDAD S.A.
Abeslari, 4- 2. esk.
Tfnoa: 943 13 46 07

HANDIK ETA HEMENDIK

“

“Baserrian ez gara kalean bezala ohitu. Baserrian beti izaten da lana eta horrek pertsona gogorragoa egiten zaitu.”

NEREA AMILIBIA

Korrikalaria
Sasoian
2009/05

“Mundialera joateko domina bat eskatzen du Espainiako Federazioak. Bi txapelketa ditut ekainean eta bietako batean lortzea espero dut, inolako dudarik egon ez dadin. Domina lortu beharra daukat.”

OIANA BLANCO

Judoka
Diario Vasco
2009/05/22

OSPAKIZUNA



Eki Arregi Iribar

Hango eta hemengo bazterrak ezagutzeko gogoz etorri da mundura Eki Arregi Iribar. Izan ere, espero baino 15 egun lehenago jo zuen Jaione amaren atea eta, aita Aitorren baimena ere jasota, maiatzaren 17an jaio zen.

3,2 kilo eta 49 cm-rekin, etxeko protagonista handi bihurtu da txikia. Gurasoak ere txoratzen daude, oraingoz behintzat jan eta lo, negar malkorik gabe egiten duela eta semeak. Zorionak hirukote!

ZORIONAK!



Boluntario prestuei

Maiatzaren 31n Kukuarri eguna ospatu genuen oriotarrok, gurutzea jarri izanaren 60. urteurrenarekin batera, eta ekainaren 7an, berriz, 124.ez, Pagoetakoa izango da Aian. Urtero egun bereziak izaten dira bi horiek, batez ere mendizaleentzat, berek baitira mendiari eta gurutzeei bisita gehien egiten dizkietenak. Zelaiak eta belarrak garbitu, hamaiketakoa prest... Berdin da urtean behin bakarrik bertaratzen bazara ere, eskuzabal hartuko zaituzte.

Boluntarioak aurkitzea hain zaila den garai hauetan, zorionak hori dena antolatzen duzuenei.

Orioko Herri Ikastola

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04

FAX: 943 13 09 38

orio@ikastola.net

www.oriokoikastola.net

INDO

Garraio frigorifikoa

NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

ITSASADARRA, S. L.

Jose Angel Iradi Udabe

aseguru artekaria
finka administratzailea
gestoria
enpresa berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa

Tel 943 29 40 29 - Fax 943 63 54 56 itsasadarra@itsasadarra.com
Iba: Ordo 4, behea, 20810 Orto

iSLada

BEHEKO ZONEAN

Sheila De Miguel - Sarry Cendoya

Sabearen kalea, 2 behea Orto 20810
Tel: 943 131 836
e-maila: isladario@hotmail.com

OROIMENAREN KUTXA



1930 inguruan Gernikara joan ziren herriko gazteak egun pasa. Han ere esan ote zieten, ba, Orio Keta?

I. ITURAIN

JAIOTAKOAK

- Dylan Rodriguez Perez, Orion, maiatzaren 20an.
- Ander Irigoien Azkurra, Orion, maiatzaren 19an.

EZKONDUTAKOAK

- Alberto Crespo Furundarena eta Amaia Graña Ferradares, Orion, maiatzaren 30ean.
- Vanessa Fernandez Fernandez eta Josemari Agirre Urbietta, Orion, maiatzaren 30ean.

HILDAKOAK

- Ez da hildakorik izan.

Orio Keta! Bilboko estropadetan

Inazio Sarasua zenak kontatzen zuen behin zer gertatu zitzaion mendian zebilen baserritar bati: guardia zibil batekin topo egin, zerbait esan beharra sentitu eta *haizia harro*; guardia zibilak orduan: *no, no tengo tabaco*. Biek ere hizkuntza bakarra zekiten eta txapelokerrak haxe ulertu zuen: *hay zigarro?* Grazia egiten du bitxikeriak.

Elkarri ezin ulertu hori, eskolan ere gertatzen zen maisu-maistra eta ikasleen artean. Behin Orioko eskolan bi haureztabaida bizian ari ziren: *bai, ba, noski* batek eta *ez, ba, noski* besteak eta, halako batean, maisuak *¿pero qué estás hablando, en ruso o qué?*

Zenbat aldiz ez ote zaie gertatu Orioko arrantzaleei


Bermeokoekin hizketan hasi eta elkarri piperrik ez ulertzea? Nik halaxe erantzun nion, aspaldi, bizkaieraz berba egin zidan lehenengo pertsonari, hark *zelan?* galdetu zidanean: *ez, ez det lanik egiten*. Ba, garai batean antzekoa gertatzen zitzaien Bilbora estropadara joaten ziren oriotarrei. Nik askotan entzun izan diot gure aita zenari, Bizkaiko jendeak zer oihukatzen zien Orioko arraunlariei estropadan: *Orio keta!* Orioko jendeak ez zuen ulertzen zer esan nahi zuen *keta* horrek.

Nik neuk ere ez nekien, iaz hondarribiar baten artikulua irakurri eta haren haritik esanahia argitu nuen arte. Hondarribiako estropada egunean, hango jendea, herriko trai-

neruak bertako estropada irabazita, pozaren pozez, kantari zebilen *bat, bi, hiru, lau, bost, sei, zazpi, Hondarribik, hori hori, irabazi bandera*. Berak horrela ulertzen omen zuen kanta hasieran, baina hamai-kagarren aldiz entzunda, konturatu zen bestela zela: *Hondarribik Oriori irabazi bandera*. Hori irakurri nuenean, bururatu zitzaidan zer zen *Orio keta* hura: bizkaierazko *ori ok eta (hori dok eta)*. Hori-xe zen, besterik ez, bizkaieraz.

IÑAKI ITURAIN

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:
943 83 15 27



iñaki argazkiak
caperochipi

ezkontzeko asmorik bai?

www.ikapero.com/ezkontzak
659378751
ikapero@ikapero.com

KOLON TXIKI
Herriko Enparantza, 4
ORIO
Tel. 043 83 00 44

ETORRI, ESKAINTZA PAREGABEAK DITUGU ETA!

TIEN 21

Arizaga, 15; 20810, Orrio Tf: 943 83 38 81 izarra7@vodafone.es

BEGOÑA BAILYN | SOLOZABAL AUTOESKOLAKO IRAKASLEA

“Euskara ikasteko ere baliagarria izango zait niri”

Solozabal autoeskolako irakaslea da Begoña Orion. Autoeskolako irakasle izateko zer egin behar den eta, bide batez, euskarazko eskola teorikoak emateko nola moldatuko den galdetu diogu, badajoztarra baita.

Noiztik ari zara gidabaime-nerako eskola teorikoak ematen?

Iazko irailetik nabil hemen. Gida praktikako irakasle izan nahi dut eta, helburu hori duten gehienak bezala, eskola teorikoak eman behar azterketak prestatu bitartean. Autoeskolan inor ez dabilenean denbora libre asko izaten da eta oso ondo datorkigu azterketetarako prestatzeko.

Zer egin behar da, bada, gida praktika eskolak emateko?

Oposizioak egitea bezala da. Plaza mugatuak daude, beraz, azterketa oso zaila izaten da. Atari proba bat egin behar da lehenengo, autoeskolan egiten diren azterketak baino pixka bat sailxeagoa izaten da normalean, eta gero praktiko bat egin behar da. Hori gaudituta, hiru ebaluaketako kurtsoa egin behar da zazpi ikasgaiekin: psikologia, trafikoko ikurrak, pedagogia... denetik ikasten da. Hiru hilabetez praktikak egin behar dira gero eta lortzen duzun notaren arabera toki batean edo bestean ikasi aukera deza kezu. Lehen ez, lehen dena Madrilen egiten zen, han bakarrik.

Aurten, esaterako, inoiz baino jende gehiagok eman du atari probarako izena, krisia dela eta CEAC, CCC eta horrelako lekuetan eskaintza bereziak egin dituztelako. Hori dela eta, aurtengo azterketa ohikoa baino askoz zailagoa



Begoñak irailetik ematen ditu gida baimenerako eskola teorikoak.

KARKARA

Gurean euskaraz irakasteko konpromisoa hartu bada, hala izango delakoan nago, baina ez dakit nola moldatuko naizen

izan da eta oso jende gutxi gaudituta, galdera batzuk ez baitziren liburuetan ere agertzen. Ondorioz, manifestazioak antolatu dira, mota guztietako mobilizazioak... eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiak azterketa berriz egitea erabaki zuen, lehen egiten

Leku batzuetan denbora beharko da egokitzeo, baina denborarekin normaltasunez ikasi ahalko da

zenaren modukoa. Hala ere, ez zuen gipuzkoar bat berak ere gaudituta. Eusko Jaurlaritzak ere egiten ditu hautaketa probak eta, ikusi ahal izan dudanez, askoz errazagoa da gaudituzko. Hurrengo urtean horretara aurkezteko asmoa daukat.

Orain euskaraz ere eman beharko dituzu eskolak. Nola moldatuko zara?

Hasteko, esan euskara ikasten ari naizela; pixkanaka, baina ari naiz. Hortik aurrera, Solozabal autoeskolak euskaraz irakasteko konpromisoa hartu badu, hala izango delakoan nago, baina ez dakit benetan nola moldatuko naizen.

Ez dugu gaiaz oraindik asko hitz egin. Uste dut ni euskaraz moldatzeko gai izan bitartean, orain argitaratu dituzten euskarazko eskuliburuekin eta ordenagailuetako programa berri batzuekin moldatu beharko dugula. Nahi duenak euskaraz ikasteko aukera izango du, baina nire azalpenak gazteleraz entzun beharko ditu. Bide batez, euskara ikasteko ere baliagarri izango zait niri, esfortzu handia egiten ari naiz eta.

Eta zer iruditzen zaizu euskaraz ikasi ahal izateko hartu duten neurria?

Niri? Primeran. Norberak bere hizkuntzan ikasteko aukera izan beharko luke eta neurri honekin lortu daitekeela uste dut. Leku batzuetan denbora beharko da egokitzeo, gure kasuan bezala, baina denborarekin normaltasunez eta trabarik gabe ikasi ahal izango da.

Lehendik ere azterketak euskaraz egiteko aukera bazen, eta jende askok galdetzen zuen gainera, horren inguruko informazio gehiegirik ez baitago. Baina orain arte eskuliburuak gazteleraz zirenez, askok nahiago zuten azterketa ere gazteleraz egin. Gidatzeko baimena lortzea garestia da eta gutxi ziren gazteleraz ikasi eta azterketa euskaraz egiteko abenturara ausartzen zirenak.

TREN ORDUTEGIAK

DONOSTIA - ZARAUTZ

Donostia	05:47	06:17	06:47	07:17	07:47	08:17	08:47	09:47	10:47	11:47	12:17	12:47	13:17	13:47
Aia-Orio	06:11	06:41	07:11	07:41	08:11	08:41	09:11	10:11	11:11	12:11	12:41	13:11	13:41	14:11
Zarautz	06:19	06:50	07:20	07:50	08:20	08:50	09:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20

Donostia	14:17	14:47	15:17	15:47	16:17	16:47	17:17	17:47	18:17	18:47	19:17	19:47	20:47	21:47
Aia-Orio	14:41	15:11	15:41	16:11	16:41	17:11	17:41	18:11	18:41	19:11	19:41	20:11	21:11	22:11
Zarautz	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

ZARAUTZ - DONOSTIA

Zarautz	06:08	06:38	07:08	07:38	08:08	08:38	09:08	10:08	11:08	12:08	12:38	13:08	13:38	14:08
Aia-Orio	06:15	06:45	07:15	07:45	08:15	08:45	09:15	10:15	11:15	12:15	12:45	13:15	13:45	14:15
Donostia	06:39	07:09	07:39	08:09	08:39	09:09	09:39	10:39	11:39	12:39	13:09	13:39	14:09	14:39

Zarautz	14:38	15:08	15:38	16:08	16:38	17:08	17:38	18:08	18:38	19:09	19:38	20:09	21:09	22:38
Aia-Orio	14:45	15:15	15:45	16:15	16:45	17:15	17:45	18:15	18:45	19:15	19:45	20:15	21:15	22:45
Donostia	15:09	15:39	16:09	16:39	17:09	17:39	18:09	18:39	19:09	19:39	20:09	20:39	21:39	23:09

Gipuzkoan garraiatzeko begira: www.mugitu.com

AUTOBUS ORDUTEGIAK

LANEGUNETAN

Donostia	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Donostia
06:55	07:25	07:35	06:45	06:55	07:30
07:40	08:15	08:25	07:15	07:25	08:00
08:10	08:45	08:55	07:45	07:55	08:30
08:40	09:15	09:25	08:15	08:25	09:00
09:10	09:45		08:45	08:55	09:30
09:40	10:15	10:25	09:20	09:30	10:10
10:40	11:15	11:25	09:45	09:55	10:30
11:40	12:15	12:25		10:30	11:10
12:10	12:45	12:55	10:45	10:55	11:30
12:40	13:15	13:25	11:45	11:55	12:30
13:10	13:45	13:55	12:45	12:55	13:30
13:40	14:15	14:25	13:20	13:30	14:10
14:10	14:45	14:55	13:45	13:55	14:30
14:40	15:15	15:25	14:20	14:30	15:10
15:10	15:45		14:45	14:55	15:30
15:40	16:15	16:25	15:20	15:30	16:10
16:40	17:15	17:25	15:45	15:55	16:30
17:40	18:15	18:25		16:30	17:10
18:10	18:45		16:45	16:55	17:30
18:40	19:15	19:25	17:45	17:55	18:30
19:10	19:45	19:55	18:45	18:55	19:30
19:40	20:15	20:25		19:30	20:10
20:15	20:50	21:00	19:45	19:55	20:30
21:00	21:35	21:45	20:45	20:55	21:30
22:15	22:50	23:05	21:15	21:25	22:00

ASTEBURUETAN

Donostia	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Donostia
08:00	08:35	08:45	06:45	06:55	07:30
09:00	09:35	09:45	07:45	07:55	08:40
10:00	10:35	10:45	08:45	08:55	09:40
11:00	11:35	11:45	09:45	09:55	10:40
12:00	12:35	12:45	10:45	10:55	11:40
13:00	13:35	13:45	11:45	11:55	12:40
14:00	14:35	14:45	12:45	12:55	13:40
15:00	15:35	15:45	13:45	13:55	14:40
16:00	16:35	16:45	14:45	14:55	15:40
17:00	17:35	17:45	15:45	15:55	16:40
18:00	18:35	18:45	16:45	16:55	17:40
19:00	19:35	19:45	17:45	17:55	18:40
20:00	20:35	20:45	18:45	18:55	19:40
21:00	21:35	21:45	19:45	19:55	20:40
22:00	22:35	22:45	20:45	20:55	21:40
22:30	23:05	23:15	21:45	21:55	22:40

OHARRA: lanegunetan koedro argidun ordutako autobusak Ubieltik pasatzen dira. Asteburuetan, berriz, guztiak pasatzen dira. Koedro funtzioko ordutak larunbatetako (lanegunak) zerbitzuei bakanik dagozkie.

Aia eta Orio arteko autobus zerbitzua Landabusek daroma. Zerbitzuari buruzko informazioa lortzeko zenbat bida daude:

www.landabus.com

TF: 943 24 01 54

sms-a 5280 zerbakira

ITSASOA

Ekaina	Itsasgora	Itsabehera	Ilargia
05	03:39 eta 15:57	09:40 eta 22:01	
06	04:23 eta 16:37	10:22 eta 22:44	
07	05:02 eta 17:15	11:00 eta 23:25	☉
08	05:39 eta 17:50	11:37 eta _____	
09	06:14 eta 18:26	00:03 eta 12:14	
10	06:48 eta 19:01	00:40 eta 12:49	
11	07:23 eta 19:38	01:16 eta 13:25	
12	07:59 eta 20:17	01:53 eta 14:03	
13	08:39 eta 21:00	02:31 eta 14:43	
14	09:23 eta 21:47	03:13 eta 15:28	
15	10:14 eta 22:40	04:01 eta 16:20	☾
16	11:15 eta 23:40	04:55 eta 17:20	
17	12:19 eta _____	05:55 eta 18:24	
18	00:44 eta 13:21	06:56 eta 19:27	
19	01:47 eta 14:18	07:56 eta 20:26	

ZAINZAKO BOTIKAK

EKAINA

- 06an eta 07an, Iriarte
- 08an, Larrañaga
- 09an, Mutiozabal
- 10ean, Zulaika
- 11n, G. Artiñano
- 12an, Mutiozabal
- 13an eta 14an, G.Artiñano
- 15ean, Azaldegia
- 16an, Etxeberria
- 17an, Iriarte
- 18an, Mutiozabal
- 19an, Zulaika
- 20an eta 21ean, Etxeberria
- 22an, Larrañaga
- 23an, Mutiozabal

Azaldegia: Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz

Etxeberria: Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz

Mutiozabal: Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz

Larrañaga: S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz

Lasa: Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio

G. Artiñano: Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz

Iriarte: Zinkunegi, Pilartxo Enea 943 13 29 83 Zarautz

Zulaika: Bizkaia kalea, 41 943 13 39 94 Zarautz

TURISMO BULEGOA

■ Ekainaren 1etik aurrera, egunero irekiko da Orioko turismo bulegoa. Astelehenetik larunbatera, goizez (10:00-14:00) eta arratsaldez (16:00-20:00); igandetan, goizez bakarrik.

PODOLOGOA

■ Aian, ekainaren 6an. Ordua hartzeko, udaletxean eman behar da izena. Tf: 943 13 11 44.

SILLO-BOLAK

■ Aian, ekainaren 9an. Zerbitzuaren inguruko informazioa jasotzeko Urkomera, 943 81 65 00ra deitu edo bertako Igorrekin hitz egiteko: 660 04 97 51.

TRASTE ZAHARRAK

■ Orion, ekainaren 10ean altzari zaharrak jasoko dituzte. Bezperan utzi behar dira eta nolakoak diren jakinarazi Udalean.

ERAKUSKETA

■ Ekainaren 8tik 12ra, Orioko Herri Ikastolako ikasleek urte osoan egindako lanen erakusketa. Orioko kultur etxean, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

UEMA EGUNA

■ Ekainaren 13an, Udalerri



Eskolako festa

Zaragueta eskolak egun osoko festa egingo du larunbatean, ekainaren 6an: Salda eta pintxoak, 11:00etan; haurren antzerki, dantza eta kantu emanaldia, 11:30ean; bazkaria, 14:00etan; haurrentzako tailerrak, bazkalondoan, 17:30ean; musika saioa, 17:00etan. Bestalde, egun osoan, puzgarriak izango dira eskolako patioan.

Euskaldunen Mankomunitatearen (UEMAren) eguna. Beran.

BIZIKLETA EGUNA

■ Orion, ekainaren 14an, Zaragueta eskolak antolatuta, 3. Bizikleta eguna. Irteera: eskolan,

10:45ean. Hamaiketako, ondoren.

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN JAIA

■ Bergaran, ekainaren 7an, Euskal Eskola Publikoaren 18. jai.

EMANALDIAK

■ Ekainaren 15ean, 17an, 18an eta 19an, Danbolin Musika Eskolako ikasleen emanaldiak. Orioko kultur etxean, 18:00etan.

IKASTOLAKO JAIA

■ Ekainaren 12an, Orioko Herri Ikastolako jai: emanaldia, Karela kiroldegian, 18:00etan. Gaiak: unibertsoa eta oporrak; patata tortilla dastaketa, ilunabarrean. Ikastolako patioan.

HITZALDIAK

■ Ekainaren 9an, Herri natura taldeak antolatuta, Joseba Agirreazaldegiren *Laponia zeharkatuz eskiekin* hitzaldia. Orioko udaletxeko udalbatzar aretoan, 19:00etan.
■ Ekainaren 15ean, *Hitzez* baserriko emakumeen taldeak antolatutako hitzaldia. Gaia: sexualitatearen bizipena emakumeen helduaroen. Hitzlaria: Amaia Vazquez psikologoa. Eibarko Andrao baserriaren elkartearen goitizan, 15:30ean.

ORGANUAK EMATEA

■ Ekainaren 7an, 2009ko organuak emateko kanpainako mahaia jarriko da Orioko udaletxearen aurrean.

AZOKA

Iragarkietarako txokoa

Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, doako zerbitzua da-eta gurea.

GALDUTAKOAK

■ Giltza sorta galdu nuen apirilaren 14an, plaza eta anbulatorioaren artean. Jaso duenak udaltzaingora eramatea edo 943 13 26 52ra deitzea eskertuko genuke.

■ Duela aste batzuk ordulari bat galdu nuen plazatik Aita Lertxundi kalera bitartean. Lotus markakoa da eta niretzat balio handikoa. Bilatuz gero, dei ezazue, arren, 943 83 03 97ra.
■ Giltza sorta bat azaldu zen apirilaren bukaeran Aian. Larruzko giltzatakoa du. Jabeak Aiako kultur etxean jaso dezake.

ALOKAIRUA

■ Orion bizitzeko lekua alokairuan hartuko nuke, bakarrik ordaintzeko modukoa. Bestela, erdibana egiteko interesik baldin badu inork, elkarrekin bila

genezake: bizileku@gmail.com.

LAN ESKAINTZA

■ Emakume bat behar da uda honetan, goizez, 2 ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tf: 620 91 22 01.

LAN BILA

■ Ekitaldietako estrukturalak jartzen eta auto pilotuetako gidaritzan esperientzia dut eta lan bila nabil. Berehala hasteko. Tf: 634 872 383 (Alberto).
■ Familia edota edadetuak zainduko nituzke gau eta egun. Eskarmentua badut. Tf: 686 04 27 32.

■ Geriatrian titulatu naiz eta edadetuak, haurrak... zainduko nituzke. Zaintetan esperientzia dut eta badakit sukaldean ere. Tf: 639 40 94 21.
■ Edozein lan hartuko nuke: 639 40 94 21.

EROSTEKO

■ 1.000 euro inguru balio duen bigarren eskuko autoa erosiko nuke, lanerako. Tf: 666 913 176/ 679 859 243.

Patxi Zubizarreta

-hamar mezu eta dei bat-

Ekainak 19, ostirala
19:00etan, Orioko udaletxeko
udalbatzarraren aretoan



KARKARA
20 urte